


Juan Manuel Etxebarria

# *Iaun Zuria*



**kin**

IBAIZABAL



Zeberiokoa. Bilbon jaio zan 1948an. Filosofia eta Magisteritza ikasketez gain, ohorezko matrikuladun lizentziatua eta "Cum Laude" eta guztizko doktorea dogu Euskal Filologian Deustuko Unibertsitatetik.

Gaur egun, Euskaltzaindiakoa izateaz batera, doktorego tesietako zuzendari lez, herri-euskera bizia jaso eta etorkizunera bideratzeko proiektu interesgarri eta behar-beharrezko baten daragoio Etno-Linguistika bidean.

Beste alde batetik, On Jose Miguel Barandiaranek sortu eta zuzendutako Bizkaiko Etniker taldekidea dogu Labayruren babespean. Guzti honegaz batera, idazlea ere bada. Besteak beste, hiru arlo landu dauz: etnografia, hizkuntzalaritza eta ipuingintza, bizkaiera gaurkotuan zein batuan. Besteak beste, bereak dira:

- *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*
- *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*
- *Gabonetako ipuinak*
- *Gorbeiatarrak*
- *Gure fabulak*

*Juan Manuel Etxebarria*

# IAUN ZURIA



IBAIZABAL

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
diru-laguntza jaso dau.*

© IBAIZABAL ARGITALETXEA  
BILDUMEAREN DISEINUA: ANTON OLARIAGA  
AZALEKO MARRAZKIA: JESSE  
BARRUKO MARRAZKIAK: JESSE

ISBN: 84-8325-080-2  
LEGEZKO GORDAILUA: BI-2214-97  
IBAIZABAL ARGITALETXEA  
48290 EUBA - ZORNOTZA  
TAILER GRAFIKOAK: ZURE S.A.

IAUN ZURIA

Nork esanda eta zerik eraginda joan nintzan \*baino ez da, eta eskerrak joan nintzana, baina Mundaka, Bakio, Bermeo, Busturriako Altamira-Axpe, Arteaga, Kortezubi, Forua, Luno-Gernika, Durango, Orduña, Zeberio eta jakina, Arrigorriagako ia-ia sitsak edo eta zedenak jan eginiko dokumentu zaharrak leidu ahala eta herriotako batzuegandiko entzute zaharrak adi eta zurt entzunik, bihotz barruan Bermeo eta Mundakaren aurrez aur dagoan Izaro islea arakatzeko geroago eta \*intzigu bi-ziagoa sortzen jatan.

Harrezkero, nik neuk baino ez dakit zenbat \*haronako egin neban Izaro ikusten dan ingurumarietatik, islara bertara joan gurean. Ni neu bakarrik ez nintzan ausartzen, egia esateko, txaluparik ere ez neukan, eta beste alde batetik ez neutsan inori esan gura nire neure bihotzeko bihozkaidea.

Baina, \*auroga bako \*aurbeherarik ez dagoanez, baten bategana jo behar neban eta Txomin arrantzaleagana egin neban alkarren lagun ginan eta.

Txominek, bere ia laurogei urteokaz, arrantzari eragoion baina ez itsaso luzezabaletan, bere sasoi-sasoian lez, ezpabere Izaro islearen \*oboen-oboen baino. Txipiroitan joatea zan oraingo bere \*beharleku edo denpora emotea.

Egun baten, Mundakako Santa Katalinatik nenbilela, hara han non ikusten dodan Txomin bere motor txikidun txalupan porturako bidean. Heldu zan, neu ere bai beragaz nahaste, soka bota txalupari eta ni ikusikeran,

plastikuzko kantintxo berdea gorantz jasorik ziraustan: “gaur berrogeita hamazortzi!” —txipiroi, jakina.

Portu beharrok egin ostean, berbaldia egin genduan biok biotara eta \*gesu baten etxera joatekotzat gengoanean esan neutsan ba ze:

—\*Aiko Txomin, zer emongo neukean \*baino ez da gaineko egunen baten zeugaz joan eta txaluparik hara zu zeu arrantzan ikustearren!

—Hori baino ez bada, ez da asko eskatzea —erantzun eustan irribarrez \*ahoa askatuz.

Nik gau haretan ez neban ia lorik ere egin. Bihotzak \*akordatzako edo ustebako tau-pada biziak emoten eustazan eta buruak bueltak, edan bako hordia zirudiala, estukureak eragindako izerdi larria ere ez jatan falta nire gorputzean.

Etorri ere etorri zan hurrengo goiza eta geure \*barausiok egin eta gero, han ginoiazan Txomin eta biok itsasorantz goiz erdiko eguzkipean. Itsasoa bare-bare egoan, inoiz ez beze-



la, eta \*bildursartu eta guzti banengoan ere burua joango ete jatan txalupa-dantzan, zora-biorik txikiena ere ez neban jasan.

Egun osorako joan ginan, janari eta guzti, \*maleta sikua, jakina. Txipiroiak harra-patuz-harrapatuz, inon diran kontuak eta gehi-ago kontatu genduzan, hobeto esanda, kontatu eustazan berak, nik neuk ia galderak baino ez neutsazalako egiten.

Izaro norena zan itaundu neutsanean, buruko txapela kendu eta zutundu egin jatan esanaz:

—Aditu! Hori kontu hori antzina ere antzinakoa jatzu. Bermeotarrak eurena dala dinoe eta holantxe egin ere egiten da urtero-urtero Madalena egunean. Bermeotarrak, alkatea buru dala, Santa Eufemia zin-egintoki eleizan mezea entzunik Izarora hurreratzen dira propietatea adierazten dauan teilea bota eta Bermeoko teilatua Izaroraino luzatzen dala baieztatuz. Ederra zer izaten da ha giroa! Barku eta txalupa guztiak apainduta eta danak

azul-marinoz jantzita ikusteak ez dauka pare-rik munduan. Ikurriña ere jarten deuskue isla tontorrean. Gero Mundakakoekaz batera Elantxobera joaten dira barku eta txalupa guztiak bozinotsean, jai giro ederrean. Behin Elantxoberaz gero, han, bazkaldu egiten dabe, batzuk lurrean eta beste batzuk itsasontzian bertan. Eguerdiko hori egin ostean, barriro Bermeora baino lehen, Mundakako portuan sartzen dira eta han beste hainbesteko jaia ospatu Elantxoben lako anaitasunean. \*Gaulendian, iluntzen hasi baino lehen, Bermeora bueltatzen dira, portuan sarreran Zizili lamiña agurtuz.

Baina kontuz, txo! Nik besterantzako entzuteak daukadaz; Izaro estropadetara jokatu ebelazkoa Bermeo eta Mundakaren artean, lehenengo heltzen zanarentzat izatekotan.

Haxe egin ei eben; urli egunetako egunentiko oilarraren kukurrukua entzunaz batera urten eta Izarorainokoa norgehiagoka jokatatu. Baina, antza, bermeotarrak, sua eginaz, aldi baten Dimakoak Otxandiokoei egin eutsien lez, oilarra itzartu ei eben eta \*tertziozago

urtenaz estropadea irabazi. Zer egingo jako ba! Badakizu zer? Ba, munduan beti galtzen dirala alperrik honeek hiru gauzok: itsasoko euria, urruneko egur iharra eta pobrearen arrazoia.

Nik neuk, ahoa zabalik entzun neutsan kontu hori eta halan izan bazan arrazoia emon ere bai, egiak bide bakarra baino ez daualako izaten.

Eguna joan joian aurrera eta \*egurdartean ez genduan txipiroi gitxi baino harrapatu. Arrastian oster, \*alosoko txipiroialdia lortu genduan, nik neuk ere bai batzuk, posturarako lain.

Ilunabar aurretxoan, etxerako bidea hartu eta bagentozan porturantz, biderdian surfista bat edo beste zeharkatuz, ur onak eta egokiak diralako Mundakakoak horreentzat surfistontzat.

Behin portura heldu, txipiroiok banatu eta etxerako gengozala, \*berbartuaz ez baina askoz gitxiago barik esan neutsan Txomini:

—Txomin, asko eskatzea ez balitz, bihar ere eroango nindukezu zeure txalupan eta Izaron laga zuk arrantza egiten dozun bitartean?

—Bai, baina, zu Izaron bakarrik itzi, pentsatu ere ez, badaezpada!

—Zer ba?

—Zuk ez dozu ezagutzen uharte hori. Hainbesteko intzigua badozu, neuk lagunduko deusut, bermeotarren isilean, euren baimen barik ezin joan daitekelako.

Zoratu ez nintzanean zoratu pozaren pozez! Ez zan gitxiagorako izan ere, eta beste barik, zoli-zoli ekin neutsan etxerako bideari Mundakako harlanduzko kale bitarteetatik.

Hurrengo egunean, niretzat ia egun berbera, ze gau haretan ez neban begirik itxi ere egin, hartu txalupea eta baginoiazan Txomin eta biok. Nik, zakuto baten tresna batzuk neroiazan eta horretara esan eustan Txominek:

—Zer daroazun baino ez da zakuto horretan?

—Tresna batzuk —erantzun neutsan—, jorraia, mailua, zintzela...

—Zertarako edo?

—Han ikusiko dozu eta \*tirauzu, jo aurrrera Izaro aldera!

Baginoiazan biok biotara itsasbehera hasi barria zan tertzioan, Ogoño aldetik zeharkatzeko asmoz, eta han ezkerretara geunkan gure Izaro, guri geuri itxaroten.

Mundakaz bestaldeko Izaroren aurpegia ikusi nebanean, adi-adi lotu nintzakon. Txominek, ni txundituta ikustean, geratu ere egin eban txalupearen motorra. Handik gero, Txominek, hartu bere ostikopetan erabilten eban zurezko arraun txikia eta astiro-astiro Izaroren ertzeko haitz bitarte baten hankak imintea lortu genduan.

Behin Izaroraz gero, nik behintzat, aitearen eta guztiak egin nebazan eta gero jarrialdi bat ere bai ezertan hasi baino lehen.

Jarrita bai, baina nire begiak ez egozan ez lotan, zuhur baino. Ogoñoko \*hazduiari ere ez neutsan begirik kentzen eta haretara badiñost Txominek:

—Ikusten dok hori, gu eta Ogoño bitartean daukagun haitz agiri hori?

—Bai, ez dirudie handiak baina bai.

—Ba, nire neure zaharren esateetatik, hor, haitz horretan, itsasbeheretan, lamiñak egoten ei ziran euren ule gorriak orraztu eta orraztu eguzkiari aurrerik hara adituz. Abestu ere egiten ei eben gizonaekoak erakarteko baina baten bat eurengana hurreratu ezker, plisti-plasta hondoratu egiten ei ziran, inork ikusi ez egiteko edo. Orain ez dago lamiñarik ezta antzekorik ere. Kontuak dira danak. Baina lehenago ez egoanez gaurko argitasunik, holango gauzetan sinistu behar. Gaur egun, leku-izenak baino ez jakuz geratu. Lekutan-lekutan harrizko edo metalezko irudiren bat ere bai. Hortxe daukagu, Bermeoko portuan, Mundakako bandaranzko kai-muturrean, gure Zizili lamiñea.

Nik neuk, sinistu ere ezin neban egin Izaron nengoanik baina han gengoan, bateko itsas sakonetara begira, besteko Urdaibaiko

polit-edertasunak gozatzen ahotik txua dario-  
la, berba baten esanda, oinak lehorrean, begi-  
ak itsasoan eta burua, Txominena ez nekian  
baina nirea behintzat, enigma ikaragarri baten  
\* ataka-atakan.

Zutundu baino lehen, beste gauza jakin-  
garri bat ere azaldu eustan Txominek. Izurde-  
en kontua hain zuzen:

—Zuk ez dakit jakin ere egingo dozun  
—esaten eustan maisu lanetan—, baina Izaro-  
ren ingurumarietatik, sarri-askotan ikusi dodaz  
izurdeak, baina guk hemengook ez deusagu  
arrain horri hainbesteko mirarik egiten. Gaine-  
ra ez dabe atakatzen, txitxarro garaian txitxa-  
rroak jan bai, eta gu ia batere barik itzi. Gaine-  
ra, hau kontuz e!, hau neure aurrekoei entzuna  
da baina Urdaibai izena ere hemendik ei dator,  
izurde izenetik, beste era batera esanda itsas  
urdea edo itsasoko txarria. Baleiteke ezta?

Halango baten, itzi geuntsan jarrita egote-  
ari eta Txomin, pozik baino ere pozago ebiltan  
Izaro islearen \*okeluak erakutsi eta azaltzen.

Hiru-lau kobazulo handiegibakoak ere erakutsi eustazan. Baina abegirik handiena, oraindino guztiz jausi barik dagozan aldi bateko komentuko horma zaharrei egin geuntsen.

Txominek, bere uste apalean ekiena argitu eustan, zehaztasun handiegi barik, jakina, dana ere zalako berak aurrekoei entzuna, belaunaldiz belaunaldi, etxean edo herrian.

Nik neuk ere azaldu neutsazan liburuetan irakurritako barri batzuk, baina hori bai, samurtasun guztiaz, ezelan ere mindu ez egiteko eran esanz:

—Txomin, harako ha Izaroko prantziskotarren lehenengo komentua, Kalagurriko gotzain zan Diego López de Zuñiga eta Arteagako frai Martinek sortu eben 1422an. Horretarako, aurrezdik, Bermeoko Udalbatzak itzi egin eutsen isla hori erreserba batzuekaz, jakina.

—Hori holan ete da gero? —ebagi eustan Txominek aurpegia izurturik eta betuleak uzkurtuta.



—Historiako liburuetan holantxe dino —erantzun neutsan—, baina historian ere dannerik dago eta hau kontu hau ere batek bada-ki! Esandakoaz gainera, Txomin, Izaron beste ermita bi ere egon ziran, bata Santa Klara eta bestea Magdalena. Horri guzti horri gitxi baderitxozu, horrezaz aparte, hau isla hau garrantzi handikoa izan zan eta badakizu Txomin nortzuk dagozan egonda hemen bertan? Ba, aditu!, 1457ko martiaren 5ean Gaztelako Enrike IV.; 1476ko uztailaren 31an Fernando Katolikua; 1483ko abenduaren 17an Isabel Katolikua eta honexek agindu eban, ur-ertzetik komentuko ate nagusiko atakaraino eskailera bat egiteko. Ikusten dozunez, isla hau ez jatzu izan harantz-horrantzakoa gero! Ez horixe, horraitio!

Urte batzuk geroago —neragoion Txomini—, Bizkaiko Jaurreriko barku-flota gehiena “invencible” armada famatua osotzera sartu zanez, Izaro eta bertoko prantziskotarrak, defentsa lanetan ikusi eben euren burua,

\*zein areriores bat etorri eta behar ez danaren bat egin akordatzakoan zein ustekabeen.

Zer dan badaezpada zuhur egotea e! Begiratu, 1596an, Francisco Drake eta bereak, Bermeora hurreratu ziran hamalau barkugaz. Euretariako soldadu batzuk, Izaro astindu eben baina ezin izan eben prantziskotarren eleizea eta klaustroa erre.

Handik gero, urteak joan urteak etorri, 1719an itzi egin eben bertan behera komentua prantziskotarrak Foruara joateko, eta honeek bion begien aurrean doguzan harriak baino ez jakuz geratzen. Bai, Txomin, hauxe dozu liburuetan leidu dodana!

Txominek, isil-isilik eta ia begi biak negar-arpuloz beteta entzun eustazan nire barri irakurri eta ikasiak.

Handik apur bat barru, begiak argitu jakozanean, eta ezpanetan irribarrea agertu, badinost Txominek:

—Horreek istoriok holan izango dira, ni baino makina bat jakitunago badago munduan

eta, baina ez dinostazu ezer hemengo kontu famatu baten gainean!

—Zein da ba? —erantzun neutsan jakin minez.

—Ba, egia esateko, ez dakit ba kontatu behar neuskizun ere, baina, hau kontu hau zabal ibili da hemengo inguru guztietan. Badinotsut, kontu hutsa dala uste dot, eta horrexegaitik kontatzen deutsut kontatu ere, egia balitz ez, holango gauzak isilik eukiteko hobeak dira eta. Ba, antza, hemengo ingurukoren bat praile sartu zan Izaron eta hartakotzat egoan egon ere. Baina, ezin eban \*mendia hartu, hots, praileen bizimodu latzera bere burua egokitu, eta noizbehinka, gabaz, itsasbeheretan, hara komentura orduko euki eban neskalguna ikustera joaten ei zan, uger gainera joan ere, ze egon ere, igerian hari irabaztekorik ez ei egoan Bizkaiko Golko guztian. Neskeak, bere aldetik, non egoan jakinazoteko, sua egiten eutsan Laidako itsas ertzean, joan etorrietan, egun eguzkitsuetan lamiñak agertzen ziran haitzean atsedena hartzeko.

Baina egun baten, neskearen nebeak \*sorots egin eutsan bere arrebeari eta ha \*fetura ha ikusi ebanean, txarto eritzita, bataren suak eta bestearen haronakoak amaitzea erabagi eban, berbabideak zabalduan ere.

Horretarako, bere arrebea bildurtzeko, guzur itzel bat asmatu eban. Zein eta hauxe: Euliski markinar basajauna etorteko zala Izaro ondoko lamiñetara, abemarietatik goizeko \*argikanpaen bitartean.

Neskea, bildursartu eta guzti geratu zan etxean orduko gauean. Bere nebea osterā, hartu besape bete \*galtzupoila eta mistoak, eta hara han non doan Murgu ondoko hondartzara eta hantxe biztu sua.

Prailegaiak ez ekian ezer eta beti lez urten eban, gau ilunean, sua egoan okelurantz. Baina haranzkoan ez eban aurkitzen biderdiko lamin-haitza eta halakoren baten, ahulduta, hatz eta behatzak \*kipututa eta ia-ia konortea galdu eginik heldu ei zan sua egoan tokira, baina han ez egoan neskarik.

Prailegaia ez zan gauza barriz igerian Izarora joateko eta dar-dar eta hotzikeraz beterik igaro eban gau osoa. Gau haretan, hainbat buelta emon eutsan bere buruari eta azkenean neskeari bakean itzi eta praile izatea ebatzi eban. Beste batzuk, ito egin zala ere kontatzen dabe. Dana dala, danak ere kontuak, barri-tsuen asmakizunak, ez deritxozu?

Holan emon genduan egurdarteko zati dezente bat, biok biotara bakoitzak ekiana alkarri kontatzen.

Izaro guztitik ibili ginan, lau haizeetara, dan-dana ikusten. Izaroko zorua eta zerua dana egoan antxeta edo kairoz beterik. Pauso bat emon orduko, lainoa lez plantatzen jakuzan itsas-txoriok geure buruen gaintetik. Hegaz eragoioela, zoruan, txori-habiak \*errezkan ikusten genduzan, ezarteko arrautza eta guzti. Habia batzuetan txorikuma \*lumorraztubakokak ere baegozan euren \*ameak noiz etorriko itxaroten itsasoko arrain fresko eta gozoa pikuan dala. Izan ere ikustea baino ez egoan

zelako trebeak diran antxetak itsasoan begiztatu eta berehala harrapatzeko arrainok.

Halako baten, hamabiak entzun genduzan Mundakako kanpandorrean eta horretara, badinost Txominek:

—Txo!, nik neuk oraindino, isilean baino ez bada ere, angelus errezatzen dot nire aurrekoen usadioari jarraituz.

—Aurrera Txomin —erantzun neutsan— ez lotsatu eta errezatu daigun, egon gagozan tokian lehenago ere hainbat errezu egingo zan eta.

Txominek, bere buruko txapela kendu, aitaren eta semearen egin, neuk ere beste hainbeste eta Txominen belarrizko latinari, “angelu domine nuncia bi marie”, nik neuk latin ikasi eta zuzenean erantzunez, bete genduan eguerdietako ohitura hori.

Komentu zaharreko horma zaharretara eroan neban Txomin. Ordurako han neukan itzita neugaz eroandako erreminta zakutoa.

Txominek ez eukan maleziarik, baina nik neuk bai. Nik neuk, ondo gogoan neban Busturiko Axpeko eleizea barriztatzerakoan,

hango eleiz liburu zaharkitu baten atzeko azalaren barruko partean erdi irakurrita neukana. Erdi irakurrita izan behar, ia dana sitsak edo zedenak janda egoan eta.

Dana dala, Txomini beste era batera esan neutsan aurrean geunkazan horma zaharrak arakatu gura nebazala. Zelan? eta...

—Txomin, zuk ez daukazu entzuterik, lehenago, horma-zuloetan gordetzen ebezala, hamaseiko gorriak, ehuneko gorriak edo beste era bateko diruak?

—Bai, hobe ez!

—Ba, zergaitik ez deutsagu \*garbikuzi apur bat egiten horma zaharroi ia zeozer aurkitzen dogun! Zu hasi nahinondik, nik ekialdeko angelua arakatuko dot.

Txomin barregureak jo eban, baina tira, inork ez ginduzanez ikusten ez eutsan ardura, niri neuri gitxiago.

Bagenbilzan, bakoitza geure aldetik. Nik dantzan neukazan buru-bihotzetan hango libu-

ru haretan leiduntako berba soltuak: “Izaro-  
-Ekialde-Hormarri-Guruzpe”.

Txominek goroldioa kentzeari eragoion bitartean, ni neu, lau hitzotatik falta jatan bakkarraren bila nenbilen.

Oinarriko harrietatik hasi eta gorantz heinean ninoian kurutzea alde batetik eta bere azpian edo barruan horma-harrik aurkitzen neban bestetik. Oinarrietatik \*erresumara, oraingo erresumara, jakina, metro bi t'erdilez egongo zan.

Zazpigarren hormarria ikutuaz batera, klok-klok berezi bat heldu jatan belarrietara. Eskuz kendu neutsan kontuz-kontuz hari harriari gaineko goroldio \*kortikea. Behin horraz gero, urteetako higadurea \*goiti-beiti, kurutzea ikusi ahal izan neban. Hantxe egoan. Ha bai zala nire bihotzeko taupadotsa!

Barrien barriz hasi nintzan kurutzedun harria joten eta barrero ere horma-harroaren seinale.



Nork pentsatuko eban, hormearen oinarririk gorako angelu-angeluan zulo \*estari bat egongo zanik! Kurutzearena ez zan harritze-koa komentu eta euren klaustroetako harrietan ugari ikusten ziralako kristau ezaugarriak.


Ba, hantxe, usterik gitxieneko okeluan egoan “guruzpe” berba horren bidea. Aurkitua aurkituta ere, Txomini ez neutsan ezer esan eta hartu zintzela eta kontuz-kontuz ekin neutsan harri horren ertzak jaten. Horma-harri hori ez zan handia, luzearia, arra bat eta zazpi bat hartzondokoa eukan eta zabalaria osterarra bete egin eginekoa, nire neure eskukoa, jakina. Behin ertzok jan ostean, poztasuna barruak hartu ezinda, Txomini egin neutsan eupada:

—Txomin, erdu hona, eta lagundu eidazu hau harri hau ataraten.

Ahotik berba askatuz batera etorri jatan Txomin. Kurutzedun harriari eusteko agindu neutsan nik neuk zintzelaz laguntzen nera-goion bitartean.

Niri etorri ere ez jatazan egin, baina Txomini ere kendu jakozan lehentxoagoko barre-

gureak eta badaezpada, txapela ere kendu egin eban bere burutik, bera eta guzti aitaren arin bat eginaz. Atara genduan harri hori eta barruko zuloa eta zulokoa ikusi genduanean, ha eskuetako harri bakarra hirutan bihurtu zan, Txominen eta nire aurpegiak beste harri bi zirudielako. Egia zan Busturiko Axpeko eleiz-liburuko berben esangura misteriotsua. Hantxe egoan zinezko kutxa enigmatikoa. Zer ete eukan barruan? Laster jakingo genduan. Ha kutxa ha, neuk bakarrik atara neban, zuloak esku bi baino hartzen ez ebazalako. Behin kanporaz gero, \* mehatzune garbi batera eroan neban eta kontuz-kontuz itzi zedarri baten gainean.



Txomin, aitearenka ebiltan. Ezin eban ezer ulertu. Hainbeste urte izan, hainbat bider Izarora etorri, horrenbeste kontu entzun eta jakin... eta kutxa horri adi-adi, badinost ia-ia berbartu eta guzti:

—Zer ikusi behar dogun baino ez da mundu honetan! Baina, txo, zuk zelan eta non-dik atara dozun baino ez da honen barri! Hara, ez eidazu esan ere egin eta zabaldu daigun kutxa hau eta jakin barruan zer dagoan!

Esan eta egin. Kutxea giltza botata egoan eta giltza-zuloa ugerturik. Tapapeko bitartea, argizariz josita egoan, hezetasunik pasatu ez egiteko seguruenez.

Hartu neban zintzela eta neure eskuak dardara eta guzti euki arren, jo eta golpean zabalteza lortu neban. Baten bat dirutan joan izan balitz, asko poztuko zan ha ikustean eta beste era bateko zeozeren bila joandakoa ere beste hainbeste.

Han egozan alde batetik, urregorritzko txanpon batzuk. Txominek \*atoan ezagutu

ebazan hamaseiko eta ehun errealeko gorriak. Beste txanpon mota batzuk ere baegozan baina guztiz ugertuta, urdindu eta ustelduta ez esatearren.

Nik neuk oster, diruari berari baino harrera handiagoa egin neutsen diruari deusala egozan liburu biei. Zer? eta liburuak! Non? eta Izaron!

Umeak zapata barriekaz baino pozago genbilzan biok. Txominek diruok atonduten eragoion bitartean, nik neuk liburuok arakatzeari oratu neutsan.

Liburu bietarik lodiena hartu neban lehenengo eta behin. Azalekoa ez zan ondo irakurten, baina barrukoak eginda, ez egoan dudarik, Biblia zan, Vulgata, hain zuzen, S. Jeronimoren latinezko bertsioa. Fetxea eta gainetikorik ez ekarren, orriak falta ebazalako. Baina esandakoaren baieztagarri, Genesis atalaren hasieran eskuz idatzita agertzen ziran “S. Jeronimo eta S. Damaso-Summus Pontifex”, izenok eta jakina, lehenengo Vulgata 1592an argitaratu

zan. Eta eskuetakoa noizkoa zan? Seguru ge-roagokoa baina, \*dendik ere, zaharra.

Beste liburua ere hartu neban eskuetan. Zabaldu eta liburua barik koaderno antzekoa zan. Kontuak eroateko koaderno, baina ez egoan ezelango diru-konturik, ez horretarako lumerorik orrialde bakoitzeko goiko zenbakie-tatik aparte.

Hasierako orriak falta ebazan. Agertzen zan lehenengo zenbakiak, hogeita hamazor-tziari emoten eutsan fede.

Eskuizkribua neban eskuetan. Letra do-torez idatzita gaineko ikuskera baten. Ira-kurten ere hasi nintzan eta ene!, latinez egoan idatzita, eskuz baina latinez eta lehenengo berbak irakurri nebazanean, “In nomine Patris et Filii et Spiritus Santi...” hain zuzen ere, esan neutsan neure buruari:

—Tira, komentu honetako prantziskota-rreren baten eleiz kutsuko gogojardunen batzuk izango dira eta era dodanean leidu eta jorratu-ko dodaz.

Txominek bereak eta nik neure behin behineko arakatzeak egin ostean bazkari \*izki bat egitea pentsatu genduan.

Hartu genduzan harri bi aulki orde eta aurrez aurre ezarri ginan. Ordurako goseberaturik gengozonez, atara morraletik jaki sikua eta botila ardao eta on egiteko bestean jan eta edan genduan, noizbehinka sinistu ezinaren sinistu ezinak eztarrian \*gosunea egin arren.

Eguerdikoa egin ostean, \*bekanekotxo bat ere bota genduan zero urdinari begira antxeta hegalarien bitartetik. Ha bai zala poztasunezko zorabioa eta edan bako hordia. Berba baten esanda, ametsa eta errealitatea biak batera zero-lur bitartean.

Bekanekoa baino ia-ia ordu beteko sies-tea bota eta gero urten genduan lozorrotik eta telepatia bitarteko edo, biok gengozean bardin-bardin pentsatzen. Zer?, eta zer egin kutxa eta kutxako horreekaz.

Ni neu hasi nintzakon Txomini berbaz lehenengo, bere txapela esku artean ebala pentsakor ikusi nebanean:

—Txomin, bizi izan dogun hau kontatzen badogu ere ez deuskue sinistuko eta gaurko hau sekretuan edo isilpean gorde beharko dogu, zein baten batek zorotzat bota.

—Bai, baina zer egingo dogu kutxeagaz?  
—erantzun eustan Txominek.

—Ba, liburuak erdibana egingo doguz. Zu zeu zara zaharrena eta zeuk aukeratu.

—Nik zertarako behar dodaz ba liburuak? Eta gainera latinez badagoz gitxiago oraindino. Hartu eizuz zuk zeuk, nik baino probetxu handiagoa atarako deutsezu eta.

—Eta diruekaz zer Txomin?

—Neuk baneki zer egin? Hartu eta gordeko neukez baina egia esateko bildur naitazu. Norberarena ez dana hartzeak ere bihotzeko zirrarea emoten deust. Zuk zer dinozu?

—Ba nik neuk ere beste hainbeste. Kasu honek ipuin zahar bat dakarst gogora, harako

ha Balzolako suge-deabruaren ipuina eta azkenean gertatu zana.

—Zein da ba hori kontu hori? —itaundu eustan Txominek urtenbideren bat barruntatuz edo.

—Nahiko luzea jatzu baina, hain ikusten zaitut egarriaz, kontatu egingo deusut azken partea baino ez bada ere. Ba, kontatzen danez, ha Balzolako suge-deabrua bizirik itzi gura eban artzainari urregorria emon ei eutsan deabruak, guda oste baten urrunetik airean Balzolaraino ekarriz gainera, baina ondobeharrean artzainak beretzat gorde barik, Dimako S. Pedroko Gabon gaueko mezatarako emon ei eban ha urregorri guztia.

Txomini adorea etorri jakon ipuin horren azkena entzutean eta bihotz-arindurik esan eustan:

—Geuk ere beste hainbeste egin behar dogu, Mundakako eleizara eroango doguz diruok Gabon gauetako mezatarako edo ondobideko beste menesterretarako.



—Konforme —esan neutsan—, baina gure bion sekretuari eusteko, anonimoki erango dogu zakutotxo baten diru guzti hau mezu idatzi bat barruan dala.

Holantxe egin genduan. Ni liburuekaz geratu nintzan eta hurrengo domekan, limosnea tresna baten gainean itzi genduan diru-zakutoa inortxo ere konturatu ez zala.

Orduko Mundakako abadeak, domeketa-ko limosna-kontuak egiten joan zanean eta hareek urregorriak aurkitu, arteak ere hartu ezinik, jo kanpandorreko dei-kanpaeak eta herri osoa batu eban eleizan eta barria emon. Danak egozan harrituta, gehien abadea bera. Txominek eta nik ere egin genduzan harridura zeinu batzuk alkarri keinu bat eginaz baina han ez zan inor enteratu. Miraritzat hartu zan ha altxorra. Abadeak, asko iritzita eleizarako, herriko eta inguruko behartsuen artean banatzea erabagi eban, herritar guztiak buruaz baietza baietsiz.

Gaur egun ia ahaztuta badago ere, urteak eta urteetan berba egiten zan haretaz altxor misteriotsuaz.

Aurkitutako liburu bietatik, Biblia Vulgata hain zuzen, eleiz biblioteka batera eroan genduan, etxe partikularrean baino publikoan etekin hobea atarateko asmoaz. Hau ere anonimoki egin genduan, eta biblioteka horretara zertara haretarako joan nintzan baten, hantxe egoan, kristalezko urna baten letrero bat azpian dala. Zein?, eta hauxe: “Berez etorria. Eskerrik asko”.

Eta zer egin neban beste liburu edo hobeto esanda eskuz idatzitako koadernoagaz itaunduko dau baten batek. Zer egingo neban ba, astiro-astiro irakurri eta aztertu, inora erotan baino lehen zer ekarren jakiteko.

Txomini, joan jakozan ardurak eta nasai-nasai ebilen bere eguneroko txipiroi arrantzan, baina sarritan kontatzen eustanez, txalupa zein Mundakako talatik inoiz baino gehiagotan

begiratzten eban Izarora han gertatua gertatu zanetik hona.

Nik neuk ere, baneragoion neure behar-lekuari koaderno hori irakurri ahala transkribatzen.

Lehenengo lerroetan eleiz kutsua barruntatu neutsan eta \*orkolo-hatza bitarteko pasadizu arin bat emonez, azkeneraino jo neban.

Koadernoaren azkenean, eta letra bako mehatzune baten azpian beste lerro batzuk etozan “Post Data” eta “Nota Bene” izenpean. Honeek ere eskuz eta latinez. Latin klasiko eder baten. Letra alderditik, ez egoan dudarik, beste batena zan, hainbat geroago idatzita. Euskerara itzuliz holan inoan:

“Post Data: Nik, Aita Martin Hazpe Azdui abate honek, zera argitu gura dot, idatziz, kutxa baten horma-zuloratu orduko eskuizkribu hau: 1596an, Francisco Drake-ren kideak Izaroko komentu hau haustu eginik izan ebe-nez, badaezpada, aurrerantzako segurtasunerako, balio handiko honeexek gordetea ebazten da: Kristau biderako, abaterik abate etorritako

S. Jeronimoren Biblia Vulgata. Beharrizan tenporaletarako urregorri-diruok. Eta hirugarrenik, Bizkaiaren historiaren argitasunerako, eskuizkribu interesgarri hau, ezpabere, betikoa, «verba volant, scripta manent».”

“Nota Bene: koaderno honetako eskuizkribu hau, ez da prailetariko inork idatzia, baten batek ekarria baino gure Izaroko komentura. Anonimoa da. Dana dala, azkenean hauxe dager: I.Z.+909 (lumero erromanuetan, jakina).”

Errubrika eder baten barruan, Aita Martin Hazpe Azdui irakurri daiteke eta azpiragotan, Izaro, 1597, martiak 25. Hatzondo bat beherago hauxe: «Ad perpetuam rei memoriam», esaera esanguratsu hau.

Aita Martin Hazpe Azdui honen autortza irakurri nebanean, itxi egin neban eskuetako eskuizkribudun ha koaderno eta neure buruari esan:

—Zer daukadan baino ez dok neure eskuetan? Aurkitzen dodana aurkitzen dodala,

Bizkaia eta Euskal Herriaren onerako izan daitela!

Zabaldu barrien barriz koaderno zaharkitu hori eta orpoetan har barik oratu neutsan barrero hasieratik eskuizkribu misteriotsu horri. Lehenengo eta behin transkribatu egin neban, neure ordenadore portatila bitarteko. Asko kostata egin neban transkribaketea, hizkuntzagaitik baino idatziaren egoereagaitik. Orri bat baino gehiago apurtu edo eta arrakaldu ere egin jatazan, ia-ia haizea zan nahiko eta horretarako. Baina, tira, ekina zer dan e!

Behin transkribatu ezkerro, itzultzen hasi nintzan, esku-ordenadore barruan C.D.ROM-ean neukan hiztegi etimologikoa bitarteko. Banekian erreza ez zana izango, latin herrikoian idatzirik egoalako, erromantze nahaste eta guzti, baina aldats gora bako aldats beharrik ez dagoala pentsatuz, gogatsu heldu neutsan horri itzultzeko beharleku horri, ahal danik eta euskal kutsurik egokienaz jantziaz.

Edozein itzultzaile onek badaki eta nik neuk ere bai, ondoen itzulita ere, zenbat eta zenbat galtzen dauan testu original batek eta gehiago bulgarismoz beterik dagoanean. Era bateko edo besteko itzulpen mugak autortuz, hona hemen eskuizkribu honen ahal danik eta itzulpen zehatzena:

“Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, Amen. Jaungoiko guztiz ahal-duna, argitu eizu nire zentzuna eta betor nire eskulumara zure zuzentasuna egunen baten argitzeko gure etorkizuna.

Nire neure buru-bihotzetan dodan guztia zelan esan baneki, zoriontsu izango nintzateke. Nondik hasi baleki batek! Baina, tira ba, nondik eta zelan baino zer kontaturi emongo deusat lehentasuna. Dakidan guztia borobil-  
duz hauxe opa deusuet:

Bizkaiko Golkoa, guretzat ezeze, erbeste aldeko asko eta askorentzat ere ezaguna genduan. Leku ederrik badago munduan, bat

hauxe; bestela, itaundu “mare nostrum” zehar-  
katuz etorritakoei, honaxe ondora, Foruara.

Bizkaiko Golkoko jendea biziteko lain  
koiu itsas-lurretan eta pozik baino ere pozago  
bizi zan.

Aldian-aldian, aurrepausoak ere egin  
behar dira eta euretarik bat argi artifiziala lor-  
tzean egoan koska. Zelan lortu?

Itsasoak eban erantzuna. Goi-itsasoetako  
urak hotzak izoztu ahala, baleak hasi jakuzan  
etorten Bizkaiko Golkora. «Balaena Visca-  
yensis».

Historiako datu idatziak etorriko dira  
etortekoak badira, baina, Bizkaiko Golkoan ez  
ziran ez lo egon. Hasieran, txalupa txikietan  
joaten ziran baleatan eta neke handiz harrapa-  
tu ere hainbeste tonako arrainak. Baina zuhur-  
tasunez jokatzuz, barku handiagoak egitera ali-  
matu ziran baleatan zoliago ekiteko. Portu  
bakoitzean sorosten egoan baten bat eta balea  
ikusiz batera hara han portu ezbardinetarik  
harako barku \*elia balearen atzean, estropada

zirudiala. Behin harrapatu ezkerro, banaketea etorren, sorosteagaitik, arpoia botateagaitik, laguntzearren... eta, zertarako? Orio antzeko \*ziha egin bale-koipeaz, eta gero, jakina, farola-argiak isiotuteko.



Holan ebilzan gure arrantzaleak. Gero-go eta barrurago sartzen jakuzan itsasoan arriskuak gaindituz. Baina lehentxoago esan dodanez, kontatzen nagoan hau, ez dago idatzian oinarriturik, nik neuk ikusi eta bizita baino.

Oraintxe sartuko niaitzue gure historian. Peru umezurtza genduan Mundakako



bale-arrantzan trebeena. Peruk berak ere ez ekian argi bere jatorria. Jentilen erasoren baten galdu ei ebazan bereak bera jaiobarria zala. Baten batek mantendu eta hazi eban. Behin bere sasoiraz gero, txalupa bategaz hasi bazan ere, jadanik belauntzi-baleuntzi baten jabe ginda egoan. Lur lehorrean ere ehiztari parebakoa zan, Arteako ahaide zaharrei testigantza emonez. Santimamiñetarra zirudian. Ez ete zan gero?

Egun baten, Andramari martiko egunean, kukuaren kukuotsa entzun bezain laster, hartu bere barkua, eratu tripulazioa, hornitu janari, edari eta arrantza tresneriaz eta itsasosan barrura sartu zan Amabirjinari salbea erre-zatu eta gero.

Nora ete joian gure Peru? Geroago jakingo danez, kontatu ebanak berak ere ez ekian. Zelan jakingo eban ba?

Udabarria joan zan eta Peru ez zan agiri. Uda ere eta lehen bezela. Negua eta arrastorik ere ez. Perurenak egin dau! —inoan jende

guztiak—, zeozergaitik izango zan ha aldi bateko esaera zaharra: “Sua, edurra eta ura, onak, baina belaunetatik gora kontuz!”

Bizimoduak aurrera egin eban Perurena gertatu arren, itsas aldean arrantzan eta lur lehorrean nekazaritza zein artzaintzan.

Handik urte batzuetara, bagileko S. Juanetan, Busturiako Altamiran alkartu ziran inguruko guztiak S. Juanak ospatzen.

Jai handia egiten zan. Bezpera goizean, goizeko <sup>\*</sup>inontzean era guztietako bedar eta arbola erramatxoak hartu, pater noster bana errezatu eta gordeten ziran urtearen barruko beharrianetarako. Aurreko urteko sobreak S. Juan gaueko sua isiotuten zan.

Gero eguzkiak urtenaz batera, S. Juan haritza hartu eta etxeetan jarten zan, lora, soloetako frutu eta kristau ezaugarritzko kuru-tze bat iminiz. Eta ohiturea jatzun ezkontzak ere S. Juan haritzaz agertzea edo errekadu egi-tea. Mutilaren etxeokoa S. Juanetan jarten ei eben S. Juan haritz hori neskearen etxean eta

baiezkoa bazan, neskearen etxekoak S. Pedro-  
etan mutilarenean.

Behin gaua ailegatuz gero, zelango ha-  
lango zuziak hartuta labrantza-lurrak ingura-  
tzen ziran oboen-oboan kantuotsean:

*San Juan bagilean  
denpora ederrean  
artoak eta gariak gorde  
sugeak eta zapoak erre  
San Juan bezpera gaua.*

Gaueko sua biztuteko, arbola subil ba-  
tzuetan agertzen dan \*igeska sikatua eta jo-joa  
erabilten eben, \*sugin ona ere ona zalako suka-  
rriaren txinpartetarik sua hartzeko. Ote-egurra  
ere ona jatzun su bizia egiteko.

Sugarrak egin orduan, dana zan zantzo  
eta irrintzia alde batetik eta bedar txarrak eta  
holakoak erretea bestetik.

Azkenean, saltuak ere egiten ziran behin  
suak belaunetatik behera bajatu ezker. Muti-  
ko kaskonduak edo eta mutil gaztelok jatzu-

zan saltariok. Sasoikoren bat edo beste ere bai, gorputzak erantzun arte, jakina.

Sua amatatzen zanean, errauts-iduriak hartu zaran, artza, otzara eta otarreetan eta so-roetan zabaltzen ziran aurrerantzako uztaren ongarri izateko. Holangoa zan batean bestean-go usadioa.

Hurrengo egunean, San Juan eguna bera ospatzen egozan Altamira eta ingurukook. Eleizkizun ederra ospatu eben Lekobide agintaria aurretik zala.

Eleizkizun ostean, berbarots ikaragarri bat barruntatu eban Lekobide etxagunak eta berehala itaundu:

—Zerk izan behar dau ba hainbesteko berbarotsa egoteko?

—Lekobide jauna —inoan Mundakatik \*abantean etorritako batek arnasestuaz eta ia berbartuaz berbarik askatu ezinik—, baleki berorrek Izaro ondoko haitzean, bai, hantxe, lamiñak itsasbeheretan orraztuten urtetan daberen leku berean zer gertatzen dan?

—Zer da ba hango hori hain estu eta larri egoteko?

—Ba, aitu, jauna —inoan mundakarrak—, andrazko bat barruntatu dogu sokorru baten, hantxe, esaneko haitzean. Txalupa bat hartu eta lamiñen bat dalakotan joan gara eta uretan sartu ez danean, ikaratu egin gara eta zer egin ez dakigula bueltea emon dogu eta hemen nauka berorren aurrean zer egin ez dakidala.

Lekobide, zalpurdiz abiatu zan Mundakaraino. Behin haraz gero, hartu txaluparik handiena eta bajoian Izarorantz itsasgorak andrazko dana dalako hori harrapatu baino lehen.

Bidean joiala, geroago eta biziago entzuten ebazan andrazko horren alauriak eta bere ondora heldu zanean esan eutsan Lekobidek:

—Zaran zaran hori, mundu honetakoa zaitugu ala bestekoa? \*Parte onekoa ala txarrekoa?

—Maria nozu —erantzun eutsan negarez harek andereak—, urrunetik nator eta bildur naz. Lagundu mesedez!

Lekobide errukitu egin jakon eta kontuz-kontuz igonazo txalupara eta Mundakako portura ekarri eban Maria lehenengo eta gero zalpurdian Altamirako Lekobideren beraren etxaguntzara, agintari-etxe ederrera.

Behar-beharrezko lehenengo laguntzak emon eta gero, ohean sartu eben, ahultasun, hotzikara eta kalentura handia bitarteko ia ezertarako gauza ez zala.

Lekobide eta bere andrea biak geratu jakozan lagun egiten, itzartukeran susto-sarturik egin ez egiteko edo beste edozertarako.

Isil-isilik egozan andragizonok eta halako baten ametsetan hasi jaken Maria zeritzon hori, ametsetan baina altuan.

—Baina, zer dino honek? —esaten eutsan andreak Lekobideri—. Nik neuk ez deusat ezer ulertzen, zuk zeuk bai?

—Honek Maria honek, Iزارo ondoan berba egin deusadanean, euskeraz erantzun deust baina orain bere amaren titirik harako berbaikuna darabil eta oker ez banago Ingalaterra bera baino ere goragokoa jatzu, nik neuk dakidan ingelesagaz ez deusadalako apur bat baino aituten.

Harriturik egozan biak nor izan eitekean jakin guran. Lekobidek, bere okotzeko bizarrak lehenengo esku bataz eta gero besteaz igurtziz, zera hausnartzen eban berekautan:

—Nondik etorri jakun baino ez da emakume hau! Euskalduna ez dana argi dago. Bere itxureak dau ezagun, bere ule gorrizkea, aurpegi urdina, begi argiak... berba baten esanda bere fetura guztia goitarren batena dalazkoa deritxat. Eta gainera, hau bai dala izatekoa, nondik daki honek euskerea, gure hizkuntza zaharra?

Sukarra bajatu ahala, lo-nasaian sartu zan andra misteriotsu hori. Halan eta guztiz ere, \*Lekobidesea bere zereginetara joan

bazan ere, Lekobide han egoan, oheari deustala, adi baino adiago, zirkinik egin barik.

Halako baten, buelterdi emon eban harek andreak eta instintiboki, eskua bota eutsan samatik ugal batez eskegita eukan apaingarriari.

Lekobide ikaratu egin zan. Baina lotan jarraitzen ebala ikusirik, ha apaingarri ha sorosten hasi jakon.

Atzamar nagian, eraztun bat eukan, baina ez edozelangoa, urregorritzkoa eta diaman-  
tez josia. Horretara esan eutsan Lekobidek bere buruari:

—Hau eraztun hau eukiteko, ez dogu edonor emakume hau! Baina eraztunari berari baino esku barruan hartuta daukan zeozer horri gehiago gura deutso antza, ze soltatu ere ez dau egiten lotan egonda ere.

Lekobidek, hain eukan jakinmin handia, ez eukan eperik eta argudio bidez hasi zan jokutzen.

Maria horren lozorroa aprobeztatuz, kontuz-kontuz, eraztundun eskua laztanduz, askatzea lortu eban.



Ugal batek eusten eutsalarik, hantxe eukan belauneko errotula antzeko zeozer, alde batetik leuna eta bestetik borobiltxoagoa. Hazurrezkoa zirudian baina urteekaz harrituta hobeto esateko.

Alderdi borobilean marra batzuk ikusi ebazan. Hobeto aditu eutsanean, ene!, lauburu antzerako bat ez eutsan ikusi ba! Iruntzitateko alderdi leunera adikunea bota eutsanean, ai ene!, kurutze bat luze-zabalean erdiz gorako aldean eta erdiz beherakoan ostera hizki bi: "I.Z."

Lekobidek, aitearen eta guztiak egin ebazan eta pater noster bat erreztatu ere bai, lauburua eta kurutzea ikusitakoan.

Loaldi eder bat egin eta gero, iratzartu eta bere senera etorri zan Maria zeritzon hori eta bat-batean ohean ezarri zan barrero samatik dingilizka eukan ha esbastika ha esku barruaz oratuz eta harriturik esanaz:

—Non nago ni eta nor zaitut zu —gaelikoz lehenengo eta euskeraz gero.

—Ni, alabatxi, Lekobide Altamirako etxagun nagusia nozu, nasaitu zaitez, ez estutu, zeure etxean zagoz eta.

Hitzok entzutean, irribarreak urten eutsan hari andra polit eta gazteari eta Lekobidek bere andreari deituz, janari beroa ekarteko agindu eutsan.

Emakume errukarriak, jan ere ganoso egin eban ekarri ahalako guztia. Gero ohetik jagi ere egin zan, garbitu eta erropa garbiak jantzi ere bai, bereak ia sastuta eukazan eta.

Lekobide eta Maria ez zirala alkarregaz arrotz sentitzen esan eitekean eta bata pozik baegoan bestea ez gitxiago, horraitio.

Egunak joan egunak etorri, Maria etxeko sentitzen zan Lekobideren etxaguntzan. Altamirako inguruak ezagutu ahala, batetik Izaro, bestetik Mundaka, ibaian barrura Artea, bestaldean Foru, handik aurrerago Santimamiñe, bihotzak zeozer esan gura eutsalakotan egoan. Baina zelan eta nori esan bere barru-barruko guztia?

Lekobidek ere ez eutsan buelta gitxiago emoten bere buruari. Baekian berak, intuizioz bakarrik ez bazan ere, harek emakume harek zeozer ekarrela bere bihotzean, bere jokaera eta izakeran eban ezagun.

San Juan jaiak ospatzeko Kalagurriko apezpikuaren ordezkoa ere Altamiran egoan oraindino eta hari ere azaldu eutsan Lekobidek bere bihotzeko ez dakit zer hori.

San Pedro eguna ere jai handia zan, Mundakan batez ere. Lekobide ere han zan bere andra eta Mariagaz.

Egun ederra egiten eban. Kukuaren azken kukuotsa ere entzun eben, izan ere, San Pedroetan alde egiten dau kukuak hurrengo Andramari martikoetararte, eta badinotso Lekobidek:

—Maria, gustatuko litzakizu hara zu aurkitu zinduguzan Izaro ondoko lamin-haitzerantz joan-etorri bat egitea?

—Bai, horixe, hobe ez!

Eta joan egin ziran. Biak bakarrik. Pozik, baina bakoitzak bere moropila barruan pil-pilean ebalarik.

Lekobidek, jadanik igarrita eukan Mariak zeozer kontatu gura eutsala eta azti lana eginez esan eutsan, hantxe, Izarotik Mundakara begira:

—Maria, nondik eta zelan guganatu zaran baino lehenago, nondikakoa dozu hori ugal horretatik dingilizka daukazun esbastika hori?

Mariari negarrak emon eutsan eta esku bata esbastikara eta bestea sabelera eroanaz, holan erantzun eutsan negar-anpuloak dariola:

—Hara, Lekobide! Ernari nago, eta esbastika honetan datza haur honen aitaren nondik norakoa. Ni neu Eskoziakoa niaitzu, hango erregearen alabea, hona hemen zigiluz-eraztuna. Ez eidazu itaundu baina nik neuk ere badakit honen esbastika honen barri gura zeunkeala. Ba, aditu, nire aitaren etxean nengoan arrasti haretan, han Eskozian, eta ekaitz ikaragarritzko egun baten, nire aitaren morroi

bat etorri jakun barku-hondatze baten barri ekarrela. Nire aita, kargutu egin zan eta afrontu eta guzti ere, joan egin zan arrantzaleei laguntzen. Itsas ertzeko hazduira heldu zanean, han egoan barkua haustuta haitzen kontra eta arrantzaleak igerian ohol zatiren bati oratuta. Lehenengo lehorreratu zan arrantzalearen ohol zatian IZARO izena leidunten zan eta nire aitak ulertzen ez ebanez, beragaz etorri zanari itaundu eutsan, gaelikoz, jakina: “Nongotarrak zarie?”. Baina han ez egoan beste erantzunik hauxe baino. “Ni Peru, belauntzi-baleuntzi, IZARO!

”Ez eben gure berbaikunea ezagutzen. Ez ziran lehenengoak. Gure itsas ertzean sarri gertatzen ziran holango ezbeharrak. Nire aita, ez nik esatearren, baina bihotz zabala jatzu eta errukituz, bere jauregira eroan ebazan, jaten emon, jantzi eta gainerako guztiak egiteko. Geugaz bizi ziran. Ni neu ere handik nenbilan, keinuz ulertuz besterik ez bazan. Gure gazte-luan lan egin ahala, beste barku bat egitea pentsatu eben Peru buru zala. Jatorra zer zan

Peru! Dana zan borondatea. Bizkorretik ere pasatua. Eta nik beragandik euskerea eta berak nigandik eskozesa, denpora gitxiren barruan hizkuntza bietan alkar ulertzen genduan. Ulertu bakarrik ez, gehiago ere bai. Apurka-apurka biok biotara maitemindu ez ginan egin ba! Peruk eta barkua aurrera eroien eta begiak iparretako baleetan edo makailoetan eukezan, zelan ez ba, hartaraxe etorri ere egin ziran eta. Baina hain nengoan maiteminduta, egun baten esan ere egin neutsan Peruri neure aitaren oniritzia jakin eta gero:

”—Peru, eta ezkonduko bagina zer?

”—Bai pozik ere, baina gure arrantza proiektuari zer?

”—Hori baino ez bada —esan neutsan—, hemendik egin daikezu arrantza eta gero zure kideak joango dira Bizkaira bale-orio edo makailo gazituagaz.

”—Peruri zer pentsatu emon eutsan proposamen honek eta barku barriagaz haronako batzuk egin eta gero ezkontzekotan plantatu

ginan. Eztegurako, nire aitak hauxe eraztun eder hau egin eustan eta erakutsi ere egin neutsan Peruri. Ederra baino ere ederragoa iruditu jakon. Berak, Peruk, ostera, ez eukan hauxe, samatik eskegita daukadan esbastika hau baino apaingarri lez. Niri bardin eustan.

”Ezkontza bezperako gaulendian, eguzkia sartzamendian noiz jausiko egoala, Peruk, hara jauregiko okelu batera deitu eustan eta esan:

”—Maria, ezkondu aurretik, zeuk bakar-bakarrik jakin eta gordeko dozun sekretu bat argitu behar deusut. Zein? eta esbastika honen esangura. Gainera, itsasora noan guztietan, zuk zeuk gordeko deustazu eta ezbeharren baten galduko banintz, orduxean emon horren barri, han, Bizkaia neure herrian, zeuk edo biongandiko landare barriren batek.

”Zin egin neutsan bihotz-bihotzeko besarkada bat emonez eta amets gozo baten igaro neban eztegu bezperako gau luzea poza-  
ren pozez ia begirik itxi ere egin barik. Eskozia osoak ospatu eban gure ezkontza. Jende

guztiak uste eban erregearen alabea mutil arrunt eta erbesteko bategaz ezkontzen zala, nire aitak ere bai, baina nik neuk ez ostera. Peru ez zan mutil arrunt bat. Itxuraz, lerdena eta majoa, bihotzez urregorritzkoa eta odolez, Santimamiñeko arbasoen odolekoa. Hau azken hau neuk bakarrik nekian. Ezkondu eta gero, alkarregaz pasatu genduzan egun batzuk. Badakizu, ezkonbarriak ezkonbarrien kontuak eta hori guzti hori. Egunak eguna dakarrenez, Peruri itsaso handietara joateko tertzioa etorri jakon eta tamal handiz erdibitu behar genduzan gure bihotzak, itsasoko haronakoa egin arte. Perugaz batera, eskoziar barku bat ere bajoian, bizkaitarrekaz bideak ikasteko hain zuzen ere. Barkurarte lagundu neutsan Peruri eta azken besarkada emoterakoan, Peruk, atara bere samako esbastika eta nirean jarri eban, oraintxe daukadan lekuan.

”Egunak joan, egunak etorri, eta Peru ageri ez. Ni ostera, ernari. Aitari ere ez neutsan esan, ardura gehiago emon ez egiteko. Ia egun osoak igaroten nebazan portuan Peru



noiz etorriko baina \*kia, handik ez etorren neurerik. Irribarrea ere galdu egin jatan. Nik ez nekian zer egin. Peru galdutzat botatea ez neban entzun gura, sekretua argitzerik ere ez, eta sabeleko umea? Buruhausterik badago munduan, hauxe! Noraino joango ete zan gure Peru, esaten neban neure kautan. Banekian Kanada, S. Lorentzo, Terranoba eta Ipar itsasoetatik ere ibilia zala, eta egia esateko horrek emoten eustan itxaropen apur bat. Baina, gauzak okertu egin jatazan. Handik lasterrera, Perugaz batera urtendako beste barkua, nire aitaren morroiena, portura heldu zan.



”Nik neuk arnasea sakon hartu eta biritan eutsiz zutun-zutunik itxaron neban portu ertzean barriak entzuten hasi arte.

”Jaitsi ziran gure arrantzaleak eta eurak neuri berbetan hasi baino lehen, ni neu aurre-ratu nintzaken esanaz:

”—Bakarrik zatoze ala \*atzerik hara dator gure Peru?

”—Egia esateko geuk ere ez dakigu —erantzun eustan kapitainak.

”—Baina zelan ez dakizuela? —errepikatatu neutsen.

”Egia zan. Eurek ere ez ekien azkenean zer gertatu zan. Esan eustenez, Kanadatik etozan barku biak. Ordurako han euken karobi antzeko labe bat bale-koipeak urtzeko eta hollantxe egin eben. Gero upeletan ekarren bale-orio preziatua behin honaz gero bitzuen artean banatzeko gure ezkontzari esker. Baina Atlantiko erdi inguruko korronte batek eragindako ekaitz batek jo ebazan eta barku biak aldunduazo. Itsasoagaz borroka gogor bat izan-

da gero, erdibitu egin zala esan eusten Peruren barkua eta ahalegin guztiak egin ebezala hurre-ratzen baina ezin, eurak ere jitoan ebilzalako bela-hageak apurtuta. Itoten ez ebela ikusi esan eusten baina itsaso haretako ur hotzetatik urtetzetik ez egoan. Ai ama! Hantxe hilgo zan seguraski gure Peru besteekaz batera.

”Nik ezeze, nire aitak ere gaineko disgustua hartu eban! Zelan ez ba, neu nintzan bere alabarik gazteena eta. Ordurako nire neba-arreba guztiak ezkondata eta seme-alabak hazita egozan.

”Egun txarrak pasatu nebazan, Lekobide, egun oso nekosoak benetan. Dana euki eta ia dana galdu. Hileta-eleizkizunak egiteko ere ez nengoan, berba baten esanda, lurra jota! Egunak eta egunak eroan nebazan neure bu-ruari lorra emoten eta \*belea baltzago ez dala egingo eta, esan neutsan gure aitari:

”—Aita, goibel eta bihozbera nago baina dana ez dot galdu. Ernari nago, semea itxaroten. Peruren lurraldera, Bizkaia aldera joango

banintz, zer? Izan ere, sabelean daroadana erdia behintzat hangoa jatzu eta ondo legoke semeak bere aitaren herria ezagutzea ezta?

”—Zer dinostazu alabatxo maitea? —esan eustan aitag arduraz beterik—. Baina, zelan daiteke hori Bizkaia non dagoan ere ez dakigu eta, entzutez baino besterik. Eta gainera, bizkaitarrak, nik dodazan entzuteetatik, jende indartsuak ei dira. Erromatarrak eurek ere ezin ei eben menperatu herri hori. Eta esaten deusudan hau ez da entzuna bakarrik, irakurrita ere badaukat. Aditu arretatsu zer daukadan irakurrita, hauxe:

«Zesar, ha erromatar agintari indartsua, Bizkaia aldera ere hurreratu zan, han dagoz oraindino ere euren arrastoak, eta hainbat hiri eta gaisetiko sortu arren, ezin ebazan bizkaitarrak menperatu.

Egun baten, Zesarrek argudioz jokatu ei eban bizkaitarrak menperatzeko. Eztabaidea edo hobeto esanda, norgehiagoka bat ospatu eban ehun erromatar beste ehun bizkaitarren

aurka. Mundaka eta Gernika bitartean dagoan Foruan egin eben Bizkaiko lurraldea jokoan iminiz.

Hasi zan norgehiagoka eta hemen bat, hor bi, haragoan hiru, Zesarri ez jakon soldadurik \*arean ere geratu eta jakina, galdu egin eban. Zesarrek orduan, bere burua zuritzeko Erroman, bizkaitarren artetik indartsuena aukeratu eta bere delegatu batzuekaz batera Erromara bialdu eban agindu hau emonaz karta-postaz: Erromakook, nik neuk ere ezin dodaz menperatu Bizkaiko gizon indartsuok. Hementxe bialtzen deusuet euretariko bat horko indartsuenagaz neurtzeko. Hemen holango asko dago eta zeuok erabagi zer egin.

Joan ziran eta ikaratuta geratu arren erromatarrak, bueltatu ere egin ziran joandako guztiak, baina oraingoan beste norgehiagoka bat Erroman egiteko ebatziaz. Zesarrek, hartu ehun bizkaitar eta Erromaratu ebazan. Erromatarrak ikaratu egin ziran baina ez eben atzera egin. Tiber ibaiko isla txikia aukeratu eben norgehiagokarako.

Bizkaitarrak heldu ziran lehenengo eta helduz batera hartu eroandako txalupa eta apurtu-apurtu egin eben. Fetxoria hori ikustean arbitroa edo jueza hasi jaken esaten:

—Zer egiten dozue, astakirtenok?

—Zer? Ba, honantzako txalupa hau ez dogu behar harantzarako. Harantz, hor erro-matarrak dakarrenean joango gara, ez aduratu!

Eta han ere irabazi egin ei eben eta batzuk Bizkaia aldera etorri baziran ere beste batzuk Erromako andre-Patrizioekaz ezkondu ei ziran.»

”—Ikusten dozunez alabatxo, begira zelangoak dozuzan zure Peruren herritarrak. Batek baleki zer aholku emon holango kasu baten!

—Bazenki, Lekobide, zelango buruhauste handia emon neutsan neure aitari! Baina, tira, apurka-apurka konbentzitu egin neban. Zer egin baekian baina nogaz eta nora ez. Baina bide bat ez bada beste bat hartuz, nire aitak binkingo ezagun bati bota eutsan proposamena,

diru truke, jakina. Bikingoak, neuk emondako toki-izenak adi entzun eta gero, baietz erantzun eutsan baina kondizio bategaz, Bizkaiko Golkoko Izarotik barrurago ez ebala egingo, lehenago ere Mundakako ibaian estukurak igarota egoalako. Haretan gelditu ziran. Harek bikingoak ezagutzen eban Peruren herria eta gu, aita eta biok asko poztu ginan, Pandoraren kutzako azken altxorra galdu barik. Nire aitari bihotza apurtu heinean gelditu jakon agurtzeko besarkatu ninduanean, baina beste alde batetik ulertzen eban nire jokabidea, sabeleko umeari zor neutsalako bere aitaren etxea.

”Etorri zan eguna eta bikingoaren barkua atondu eta gero, azken agurra egin baino lehen, nire aitak aurreratu egin eutsazan urre-diruak bikingoari eta niri neuri ere diru partida dezente bat emon eustan narruzko zakuto baten nire seme eta bere iloba barria mantentzeko harik eta sasoirra etorri arte behinik behin. Oraintxe eta oraintxe ere ezin dot kendu gogotik nire aitaren portu ertzeko ge-

riza, negar-arpuloak behera eta eskuak gora ebazala.

”Bagentozan Atlantikoa behera. Itsasoa haserretzen jakunean nik neuk ez neban besterik egiten idunetik dingilizka neban esbastikeari esku bat az eta sabelari besteaz oratu baino. Makina bat errebesaldi eta botaka egin behar izan neban! Egunak luze egiten jatazan eta gauak luzeago. Gogaikarria zan ha itsas bidaia baina aurrera egin behar zan arazoak goiti-beiti. Biderdian, hobeto esanda, itsas erdian, pirata batzuk ere hurreratu jakuzan lapur aurpegi eta guzti baina ez eben gugandik ezer lortu gure barkuari atzerik hara jarraitzekorik ez egoan eta. Egunen \*kontaderia ere galduta neukan eta txarrena, jaki-edakiak urritu egin jakuzanez bikingoa ere, ausarta eta trebea izan arren, larritzen hasita egoan, beragaitik baino neugaitik, jakina. Zorteak berez etorri behar dauala esaten da eta guri ere holantxe egin jakun. Gitxien uste nebanean hasi jatan bikingoa esaten:

”—Bizkaiko Golkoa, Bizkaia!



”Nik neuk, sinistu ere ezin neban egin baina holantxe zan. Bikingoak ertzik ertz Bizkaiko itsas bazter guztia azaldu eustan eta Perugandik nekiana eta ikusten nengoana gauza berbera zan. Ha bai zala zoramena! Guztiz ahulduta nengoan baina, poza zer zan nik neure barruan nebana!

Leku politik ezagutzen nebazan baina Bizkaiko lurraldea lakorik ez. Lurreratu orduko zeozer gehiago jakinguraz esan neutsan bikingoari:

”—Ez dakizu zenbat baino gurago neukean Mundaka zelakoa dan jakitea!

”—Mundaka? —erantzun eustan bikingoak—, politetik ere pasatua. Aho-ahoan dago Izaro isla, eskoietara Bermeo eta harago Gaztelugatxe. Behin Mundakaraz gero, ibai zoragarri bat daukazu ia Gernikaraino, Urdaibai deritxo. Baina nik Mundakaren sarrera inguruan itziko zaitut. Handik aurreragokoa egingo dozu, mundakatarrak ez zaitue deslai itziko, ikusiko dozu!

”Izaro isla begiztatu genduanean iluntzea zan eta bikingoak bere barkua geratu eta hurrengo goizerarte itxarotea erabagi eban, egunez ni han iztea hobe zalako, jakina. Hurrengo goizean, goizeko lainaberea irunsi ebanean eguzkiak Izarora hurreratu ginan. Itsasbehera zan eta bikingoak Izaro eta Ogoño bitarteko haitzean itzi ninduan, hementxe, Lekobide, eta hemendixek hasi nintzan alaurika, zantzoka eta irrintzaka sokorru baten, zu zeu etorri arte. Eskerrak etorri zinana, osterantzean?

Lekobideri bihotza \*putxa lez geratu jakon Mariaren kontuak entzutean. Begi biak eukazan distiratsu negar malkoei eutsi ezinik.

Egurdarte osoa emon eben biak bietara Mariak eta Lekobidek.

Mundakako talan erromeria zan eta apurka-apurka itsasoa itzi eta hantxe ziran eurak ere. Bazkal ordua ere etorri zan eta tripa-zorriak kilikiliak egin ahala bakoitzak bere bazkaria atonduteari ekin eutsan. Lekobidek ere esan eutsan bere andreari:

—Tirauzu ba andrea, gesu baten bazkaitordu ere badogu eta egin-egin beharkodogu ezta?

—Bai, noiz gura!

Bazkari ederra egin eben. Gazigarri sikua baina gozoa janaz eta sagardo garrazba-koa edanaz, zoruan jesarrita edo alborantz erdi etzunda.

Behin bazkaldu ezkerro, Izarora begira plantatu ziran eguzkiari lepoa emonda eta gauerako itzi barik zera esan eutsan Lekobidek bere andreari:

—Lekobidesa bihotzekoa, zer ikusi behar ez dogun baino ez da gure bizitzan, baina gaur, entzunak entzunda ebatzi hau hartzen noa, ezetzik esaten ez badozu. Aditu, zu eta biok adinean aurrera goaz eta ez daukagu seme-alabarik. Akordatzakoan edo ustekabeen agertu jaku Maria baina ez bakarrik, ernari dago eta semea dakar. Horregaitik gaurtik aurrera geugaz etorriko da edo hobeto esanda etorriko dira Altamirako etxaguntzara.

Lekobideseak ez eban ezetzik esan. Poztu egin zan baina urak bere bidera ekarri nahi-an eta une egokia barruntatuz erantzun eutsan Lekobideri:

—Ondo baino ere hobeto deritxat eta gaurtik aurrera alaba bat izango dogu etxean eta laster iloba bat, baina hau kontu hau jakin egin behar dau herriak berbabideak ekiditeko. Lekobide zu ez zara edonor eta gauzak ondo eta argi egitealakorik ez dago.

Esan eta egin. Altamirara joateko itxaron barik, Lekobidek garrikutik lotuta eukan adarra hartuz adarrotsa atara eban Mundakako talan egozanak adi iminiz.

Adarrotsera danak isildu ziran. Lekobide zutundu eta pendiz batera igonaz holan hasi jaken berbaz:

—Adiskideok, dan-dana ezin deutsuet argitu baina egunokaz zorionean gagoz. Ikusten dozuenez, hementxe, neure ondoan daukat Izaro ondoan agerturiko emakumea. Ez da edozein. Urrunetik etorri jaku eta errege baten

alabea dogu. Gehiago oraindino, haurdun dago, eta andreak eta biok erabagi barri dogunez, gaurtik aurrera Altamirako etxaguntzan biziko da geugaz.

Pozarren hartu eban herriak ha barria eta arrera horri erantzunaz, Lekobide eta Lekobideseak dantza eta guztirainokoak egin ebezan atorra zuridun txistularien aurrean. Gau-iluntzean abemarietako kanpaeotsagaz batera etxeratu zan jende guztia. Maria sinistu ezinik egoan Peru barik Perurenean bere barruko ez-baiari erantzun ezinean.

Lekobidek nasai egin eban lo gau haretan. Gitxienekoa kontatu eban kontatu behar zan lekuan eta gaintetikoak bere barruan gorde ebazan.

Maria ere etxeko egin jaken eta errez hartu eban mendia alabaz Bizkaikoa izan ez arren.

Lekobidek inguru guztiak erakusten eutsazan Mariari, oinez hurrekoa eta zalpurdiz urrunekoa.

Udako egun eder baten, Santimamiñe-rako \*ditea hartu eben, oraingoz, biak bakarrik ekielako haren esbastikearen nondik norakoa.

Zalpurdia hartu eta bajoiazan berbaz-berbaz Urdaibai eta inguruko ikuspegi zoragarria gozatuz.

Foruara heldu ziranean, Lekobidek geratu egin ebazan zaldiak eta hedeak lotu horma bateko harri bitartean inkatuta egoan arandela baten. Gero jaitsi ziran biak eta Lekobidek esan:

—Aditu, Maria! Herri honi Forua jako bere izena. Erromatarrak hemendik ere ibili jakuzan baina ez ginduezan menperatu. Zuk zeuk kontatu zeunstanez, zure aitak ere holan eukan entzunda, eta begiratu non, iparrean gora, Eskozian, noraino hedatzen diran bizkaitarren barriak e! Goazen, Maria, eleizea erakutsi behar deusut erromatar inskripzio eta guzti. Bizkaian hainbat eleiza eta hilerritan agertzen jatzuz erromatarren letra-harriak. Hemen Foruan, ur-bedeinkatu ontzipean, Ere-

ñoiko marmol baten, aditu zer dinoan latinez: “IVILIAE SACRUM. MARCUS CAECILIUS MONTANUS PRO SALUTE FUSCI FILII SUI POSUIT. RAIUS QUINTIO FECIT”. Hor, mendiz bestaldean, Meakaur-Morga herrian beste hau: “F. SEMPRONIE CONIVGI. SUE POSUET MEMORIA CONS. CCCC”. Elorrioko Arginetakoak ere entzute handikoak doguz. Eta harrigarriena hau beste hau jatzu, gure zaharrak zer kontatzen euskun eleiza-egiteak zirala eta!

—Kontatu, kontatu Lekobide, irrikatzen naukazu eta, entzuteko.

—Ba begiratu, Maria. Hemen Bizkaian, entzute handikoak doguz Jentilak. Pertsonaia handiak ei ziran, erraldoiak. Hanka bata Kati-lloxun eta bestea Atxerreko S. Pedron iminiz, Urdaibaiko ura edaten ei eben. Herria bildur zan euren inguruan, gaur ere oraindino batek baino gehiagok sinistu ere egiten dauala entzuten da.

—Jentilak zer zerikusi eben eleiza-egiteekaz?

—Ba, antza, kristauak egunez egiten eben behar guztia alperrik galtzen eben jentilak gauez, hots, kristauak egunez eginiko hormak, apurtu eta beste leku batera eroan. Eta holan egiten ei eben gauero. Baina egun baten, bateren batek sorots egin eutsen gauez kortako leiho batetik. Jentilak konturatu egin ziran eta \*itaurren joan zanak esan ei eban ba ze: «Zelatan dagoanari begia galduko balitzako!» Eta halaxe gertatu ei zan. Harrezkero dakigu jakin ere jentilak zirala gauezko beharleku hori hartzen ebenak.

—Polita da ipuina, baina kontua izango da ezta hori, Lekobide?

—Bai, jakina, baina gure herrian holan kontatzen dira belaunaldiz belaunaldi antzina-ko jazoerak, argitasun gehiago ez dagoan artean zeozer asmatu behar, ez deritxazu! Gaur hauxe kontatu deutsut baina badira askoz



gehiago, kontatuko deusudaz gaineko egunetan, danerako daukagu astia eta.

Foruako atzera-aurrerok egin eta gero, aurrera egin eben. Luno herripean, Gernikan beste geratualdi bat egiteko asmoz. Mariak ez eukan maleziarik baina Lekobidek Gernikako Arbolaren aurrera eroan eban, haritz sinbolikoaren babesera eta esan txapela burutik kenduta:

—Maria, haxe da gure Haritza, erro-matarren esanetan, Arbola. Honaxe etorten gara Bizkaiko erabagi inportanteak hartzen. Hementxe eztabaidatzen doguz gure herri gora-behera guztiak. Gora Gernikako Arbola!

Lekobidek erreberentzia bat egin eutsan Haritzari txapel eta guzti aitearen bat eginaz. Imini gero txapela buruan, hartu zalpurdia eta Santimamiñerantz jo eben.

Santimamiñera zuzenean barik, Arteatik gora aidatu ebazan Lekobidek bere zaldiak.

\*Arte arterik arte arte, Ereñora heldu ziran.

Ereñoako harrobiak erakutsi eutsazan lehenengo Lekobidek. Maria ikaratuta geratu zan.

Harrobiak ikusi eta gero, mendian gora joan jakuzan biak bietara \* artaperik artape.

Goiko tontorrera igon ziranean, Mariak ezin eban bere barruko poza isilean gorde eta hauxe inoan:

—Hau bai dala zoramena! Zelango ikuspegi ederra! Ez dot holakorik inoiz inon ikusi! Orain dakust Peruren esanak ez zirala asmakizunak. Egia inoan gure Peruk!

—Egia da bai, Maria —esan eutsan Lekobidek—. Zu hona ekarri zinduzan bikingoak bildur euskula esan eutsun, baina, zelan ez dogu gorde, zaindu eta jagongo gure lurraldea hain ederra eta bizi-pozekoa izanda? Aditu, aditu eizu, hor aurrean dozuz Gernika, Forua, Busturia, Altamira, Azpe, Sukarrieta, Mundaka, Izaro, Bermeo, Matxitxako, Gaztelugatxe eta Bakio.

Handiena ikusteko daukagu oraindino. Hementxe, gure oinpean dogu gure ikustekorik handiena.

—Zer da ba Lekobide?

—Zer? Santimamiñeko kobazuloa, gure arbasoen bizileku zoragarri eta misterioitsua!

Mariak, berbok entzutean, inoiz baino gogorrago oratu eutsan aldetik kendu barik eroian esbastikeari.

Jaitsi ziran S. Migel zaharretik eta Ereñon zalpurdia hartuz Artea behera etorri ziran Kortezubin sartzeko. Kortezubin, ezkerretara hartu eben eta tipi-tapa behingo baten egin eben Santimamiñerartekoa.

Eguerdia zan jadanik eta ezer baino lehenago \*kopau bat egitea pentsatu eben arte eder baten gerizpean. Karobi baten ondotik hartu aulki orde kare-harri bana eta ezarri ziran bazkaltzen, arrastiz, kobazuloa ikusten joateko. On egiteko beste bazkaldu ebenean, mendia gora hasi ziran, oinez, Lekobide aurretik eta Maria atzerik hara. Hazdui-artadui haretatik

ibiltea ez zan batere erosoia baina ekinaren \*podasuz lortu eben kobaraino ailegetea. Kobazuloaren atakara heldu ziranean, jarri egin ziran biak atsedendaldi bat hartuz arnasestua baretzeko. Egotalditxo bat egin orduan, Lekobide zutundu egin jakon Mariari eta samurkiro esan:

—Hauxe dozu Maria Santimamiñeko koba zaharra, gure protoeuskaldunen berezko etxea. Hementxe bizi jakuzan gure arbasoak. Hemendixek hedatu ziran inguruetara. Gure zainetako odola hemengoxea dogu, Perurena ere bai, jakina.

Mariak negar eta guztiak egin ebazan berbok entzutean. Lekobidek besarkatu egin eban eta bere alabea balitz lez laztanduz esaten eutsan:

—Ez larritu Maria, badakit zer darabilzun zure buru-bihotzetan, sabelean daroazunak ere zerikusia dau koba honegaz eta bera bitarteko zu zeu ere hemengo egiten zaitu zati

handi baten behintzat. Nasai ba, zeure etxean zagoz!

Bata eta bestea, biak, nasaitu ziranean, koba barrura sartu ziran. Lehenengotan ilun egoan baina barruan egon ahala, begietako niniak dilatatzen hasi jakezan.

Kobearen \*sakonariak ikaratu egin eban Maria eta hango tenperatura hozkirriaren eraginez besoak igurdiz esan eutsan Lekobideri:

—Aizu, baina zelan bizi ziran baino ez da hemen paraje honetan zuen, bueno, orain, geure aurrekoak?

—Hara, Maria, gaur, urtearen aroaren arabera, jakina, hemen barruan kanpoan baino hotz handiagoa egiten dau baina gure arbasoak bizi ziran sasoiari, hor kanpoan hotz ere hotz egiten ei eban eta hemen barruan ostera gaurko antzean, kanpokoagaz konparatuz, epel-epel. Paradisu bat izango jaken.

Lekobidek nahiko eukan Mariaren galderari erantzuten, begi bistan ikusi eitekean guztia erakutsiz gainera. Errez-errez ikusi

eitekean era guztietako pertsona zein animalia hazurrak, zoruan ostikada bat emonaz batera. Moluskoen azal harrituak ere barra-barra zapaltzen ebezan ostikopetan. Ahal danik eta gehien erakutsi gurean, Lekobidek sua isiotu eban. Badaezpada beti eroaten eban aldean, sukarki pare bat eta igeska zati bat sua egiteko zein zuzia biztuteko. Arte egurren sugarretara askoz hobeto ikusten zan koba-sabela. Mariak esku biak berotu ebazan lehenengo-lehenengo. Eta berak ere zeozer aurkitu gurean edo, han ebilen bazterrak arakatzen.



Halango baten, Mariak, gizon itxurako eskeleto bat aurkitu eban erdi agirian. Burezurra eta belaunak ikusten jakozan ondoen. Eta Lekobideri ezer esan baino lehen, makurtu eta belaunburuko hazur edo errotula hartu eban eskuetan. Jarraian, samatik eskegita eukan esbastikeagaz erkatuz badinotso Lekobideri:

—Lekobide, aditu eizu, nire esbastikea eta belaun-hazur hau bardin-bardinak dira, itxuraz eta ikutukeraz, zer deritxazu?

—Ba, Maria, inskripzioak salbu, saku bateko gariak dirala esango neuke!

—Oraintxe bai, oraintxe gogoratzen dot Peruk harako egun baten esana. Esbastika honen jatorria hementxe dago. Perurentzat, Santimamiñeko koba sakratua zan eta errespetu handiz kontatzen eustazan hemengo gorabeherak. Esbastika hau, bere aitak emon eutsala esaten eustan, eta bere aitari, aititak eta hari birraititak, eta holan honaxe jo arte.

Lekobide bera ere ikaratu egin zan. Berak ere santimamiñetartzat eukan bere burua baina ez eban inoiz heredatu ezaugarri berezirik. Eta orain, begiratu nogandik eta zelan lortu zan arbasoen testigantza. Holakorik!

Bizikera sakonegia zan edozeini kontatzeko eta Lekobidek holan berba egin eutsan ikaratuta egoan Maria bere alaba ordeari:

—Maria, zorionekoa zaitut, zu zeu erregearen alabea bazara, sabelean daroazun semearen aita-parteko odola ez dozu gitxiago. Dakigun hau biok bakarrik dakigu eta aurreantzean ez deutzagu inori ere kontatuko destinuko beharrizan derrigorrezkoren batek joten ez bagaitu. Betor bake-bakean seme hori eta \*hatz-begiak osorik ekarri daizala! Ni neu aurrera nozu adinean baina zure semeagan argia dakust etorkizunean. Pozik nago! Salbe Bizkaia! Balio Bizkaia!

Mariak ondo iritzi eutsan ebatziari eta berak ere aitatzat hartu eban Lekobide, aspaldirik honako barruko moropilak askatuz joian neurrian.



Arrastia aurrera joian eta gesu baten etxerako ordua ere egin jaken. Lekobidek gauza gehiago ere baeukan erakusteko baina hurrengo baterako itzi eban. Dana dala, jakitun egon eitean, zer hau esan eutsan:

—Maria, oraindino handiena ikusteko daukazu. Gaur ezin dogu baina beste egunen baten zeuri eta semeari bioi erakutsiko deusuedaz hor barrurago, ondo-ondo gordeta dagozan marrazkiak, bai, harri bizián egindako irudiak eta pinturak, ikusiko dozu!

Ilunabarrean, eguzkia sartzamendian noiz sartuko egoala, Altamirako etxaguntzara bueltatu ziran bata bestea baino pozago, iratzarririk ametsetan.

Gau haretan Lekobideseak bakarrik egin eban lo. Lekobide ezin eban loak hartu etorkizuneko iluntasunean bitargi eder bat ikusten ebalako. Mariari ere beste hainbeste gertatzen jakon, Bizkaiko lurrean bere eta Peruren semearen etxea aurkitu ebala ikustean. Lekobideri ez eutsan esan baina Santimamiñeko kobazuloan egozanean eta hango hangotasu-

nak ikusi, sabeleko umea ostikoka barruntatu eban, zeozer igerri baleu lez.

Giro ederrean bizi ziran Altamirako etxaguntzan. Lekobidek labrantza ederrak eukazan ingurumarietan. Ganadu elia ere han ebilkon landarik landa zein abaroan.

Mariak ez eban hurretik ezagutzen labrantza kontua eta jakinguran egoanez itaunak egiten eutsazan Lekobideri gau-iluntzetan sutondoan:

—Zelan dakizun baino ez da ereitza noiz egin behar dan?

—\*Hazeguna jakitean dago koska! —erantzun eutsan Lekobidek—. Hazi bakoi-tzak bere garai, sasoi edo tertzioa dau ereiteko zein uzta batzeko. Urtea aurrera joan ahala zeuk ikusiz ikasiko dozu hazegunaren barri.

Hazien ereitza eta \*ernaroak dirala eta, ipuinak ere sortu dira gure herri zahar honetan. Jarri gaitezana supazterreko zizeiluan eta garia eta artoaren arteko alkarrizketea kontatuko deusut, aditu zer polita dan!:

“Behin baten gariak esan ei eutsan artoari:

—Hi, neu nok munduko bedarrik onena, gizakien jakirik ederrena!

—Ba ni nagoan lekuan ere, ez jagok goserik —erantzun eutsan artoak.

Gero beste egun baten, artoa hazita eta artaburuak agirian egoan baten esan eutsan gariari:

—Hi, hi ni baino txikiago eta \*merroa-goia haz!

—Bai —erantzun eutsan gariak—, baina txikia nazala zein ez nazala, maiatzean buru!

Hantxe amaitu ziran arto-garion ezbaiak eta egia esateko, guri ondo baino ere hobeto jatorkuz biak, garia orri jaustean eta artoa orri urtetean ereinaz.”

—Polita zer izan da gari-artoon kontu hau! —esan eutsan Mariak.

—Ba holango asko daukagu gure herrian eta beste gau-iluntzeren baten gehiago kontatuko deutsudaz gero zeuk zeure semeari ere

kontatu ahal izateko belaunaldi ohitureari jarraituz.

Maria Eskoziakoa, geroago eta etxekoago eginda egoan Lekobiderenean. Nahiera guztiak egiten eutsiezan Lekobide eta bere andreak.

Ernarialdia aurrera joan ahala, Lekobidesea batez ere, arduratzen hasita egoan. Alde batetik, ume erropa, sehaska eta gainetikoekaz baina benetako ardura begizkoarena zan, begizkoa etorri ez egiteko neurriak hartzearena.

Horregaitik Lekobideseak bere amak emondako \*laziertuna-harriak aurkitzeko etxea arakatzen hasi zan. Kostatu egin jakon aurkitzea, eta ez gitxi, izan ere, bera antzua zanez ez ebazan behar ezertarako eta. Baina orain Mariaren sein barriarentzat ondo baino hobeto etorkozan.

Laziertuna-harriak pareta izaten ziran, haritz-ezkur handiak lakoak eta idunetik eskegiten ziran titi bitarterarteko luzearian.

Maria ere ohartu zan harriokaz eta berak beti aldean eroian bezelako esbastikearen bat zalakotan esan eutsan Lekobideseari:

—Zer dozuz ba harriok, eta zertarako?

—Honeek, laziertuna-harriak alabatxi, zure sabeleko seinari begizkorik inork bota ez dakion. Eta gehiago itxaron barik imini egingo deusudaz zein begizkoak jo ez daian gure umea, bueno, zurea baina geurea.

—Baina, zer dozu ba begizkoa? —itauntzen eutsan arduraz Mariak.

—Begizkoa? Hara, alabatxua, hori ez jatzu besterik, mantzinen baten bekaizkeriaren ondoriozko ezbehar bat baino. Andrazkoa zein gizonezkoarena izan daiteke. Horregaitik, inorri kalterik egin barik ere, egon dagoz inbidia-dunak eta zertan esanik ere ez ernalditik bate-orartean motiboak norberak aurkitu ezkerro. Neurriak denporaz hartu behar izaten dira, ezpabere gero berandu izaten da herri-aztiak erremedio bila ibili arren.

Hau ardura hau norainokoa dan jakin daizun, kontatu egingo deusut urli lekutako ume bati zer gertatu jakon:

“Behin baten ume bat jaio zan Kortezubin, Santimamiñepean, eta negar eta negar baino ez eban egiten. Han ebilzan kurandera eta barberuak negarrok argitu guran baina alperrik. Azkenean herri-aztiagana jo eben ia begizkorik eukan jakiteko. Etorri egin jaken Azpeko herri-azti famatua. Umea egoan kumara hurreratu zan eta \*senzain egoanari handik kentzeko agindu eutsan. Ondo-ondo aditu eutsan seinari eta esan eban:

—Honek ume honek begizkoa dauka!

Serio-serio esan ere egin ebazan berbok eta danak itzi ikaraturik. Herri-aztia itxura bereziko andrazkoa jatzun. Soinekoak baltzak, moñoa puntaz beterik, betuleak harro-harro, aurpegia zimurraren zimurrez \*zorribideak eginda, eskuak \*lurbela lakoak eta atzazalak luzeak azpitik kortikea eginda.

Fetura horretako andrazko horrek hartu umea sehaskatik eta hortz artetik inork ulertu ez egiteko berba batzuk esan eta gero, zoruan itzi eban eta etxeko nagusiari agindu:

—Imini eizu \* surten sarten bat eta ekarri barreñu edo kaiku bat haitz-urez beteta!

Esana egin eutsien, agudo egin ere gainera. Gero herri-aztiak, gona magalpetatik berun apur bat atara eta surteko sartenera bota eban. Behin sarteneraz gero, ha beruna urtu egin zan. Urtu zanean, herri-aztiak hartu sarteneko hori eta kaikuko uretara bota eban lurrun-laino handi bat ataraz. Keak joan zira-nean oboen-oboen erabilen kaikua, eta beruna barriz solidotu zanean, ura bota eta hango figurak interpretatzen hasi zan. Batetik begiratu, bestetik ikutu, urruma batzuk egin eta gero badino:

—Begizko hau andrazko batena dozue, eta hau begizkoa uxatzeko zera egin behar dozue lehenbailehen: ume honen sehaskako lastamarraga eta oilalumaz egindako armudea erre baina kontuz!, ez edozein ordutan ez eta

lekutan, beste herri bateko eleizako eguerdiko hamabiak entzuten diran bitartean eta etxetik hurren dagoan bidekurutzean baino.

Esan eta egin. Hurrengo egunean, Arteako hamabietako kanpaeotsa entzun ebenean, orduxean erre ebezan arto-kapaxaz egindako lastamarraga eta oilalumazko bururako armudea etxerik harako bidekurutzean.

Eginak eginda ere, ha umea hil egin jaken. Beste gaixoren bat izango eban seguraski baina begizkoak jota hil zala esaten eban mundu guztiak.”

—Baina hori ezin daiteke holan izan —esaten eutsan Mariak—, hori sorginkeria baino besterik ez dozu, aitearen eta semearen...!

—Sorginkeria? Baleiteke, Maria bihotzkoa, baina badaezpada zuk eroan Laziertunaharriak aldean eta ez probokatu inor, harik eta umea bateatu arte, eta gero ere kontuz! Ezbeharrak etorri egiten dira gero! Guk jarraitu daigun etxaguntzako betiko ohitura eta sorginkrietarako ez ahaztu esaera zaharra: “Sorginak,



diranik ez da sinistu behar baina badaezpada ez diranik ere ez da esan behar”.

Maria Eskoziakoari txokatu egiten eutsan holango ohituretan sinistek, baina etorkon semeagan pentsatuz, onartuz joan zan Bizkaiko usadioak, batzuk barregurea eta guztia emon arren.

Egunak joan egunak etorri, garizuman ere sartu ziran Altamirakoak eta Lekobidegandik hasita, bulda eta guzti egon arren, zintzo-zintzo beteten ebezan barikuetako haragi izteak eta barauak.

Aste Santuz misinoiak egiteko ohiturea eben eta Lekobidek ohitureari jarraituz, Kalagurriko abade bat ekarri eban gogojardunak egiteko.

Mundu guztia joaten zan eleizkizunetara. Domeka eta jaiegunetan arimarik ere ez zan eleizara barik geratzen. Zelan ba? Abadeak, pekatu astunaren bildurpean heziten eban herria eta.

Maria ere zintzo-zintzo joaten zan Aste Santuko gogojardunetara. Eskozian ere egiten ebazan, ez hemengo antzera baina egiten ebazan.

Aste Santu barruan ere bai, baina Bazko bezperako gauean erditze sintomak sentitu ebazanez atinik igaro eban gauaroa. Lekobideseak ere zeozer barruntatu eban eta Bazko goizean Mariaren deiadarra entzun bezain laster, \* zuzian joan jakon eta esan:

—Zer Maria?

—Bart ez dot lorik egin eta sabela leher-tu beharrean daukat.

—Horreek erditze-minak dozuz Maria, oraintxe bertan bialduko dot Lekobide emaginetan.

Lekobideseak erditzeko antolamenduak prestatu orduko, han eukan Lekobidek emagina, \* inizitua baino ere arinago egin eban Lekobidek haronakoa.

Jaio zan. Mutiko ederra, narrua urdin-zurizka, begiak argiak, bizi-bizia, lehenengo

ikuskeran, amatarakoa, berba baten esanda, hatz-begiak ondo ekarzana.

Egun aproposa zan jaioteko zein bateatzeko. Aitabitxi-amabitxiak aurkitzea ez zan gauza gatxa, Lekobide eta Lekobidesea, jakina.

Baina izena, zein? Lekobidek Mariari eskatu eutsan izena jarteko. Berea eban semea eta ez eutsan eskubide hori kendu gura.

Jaiobarriaren amak ez ekian gauza handirik izen kontuetan baina aspaldirik eukan asmoa azaldu eutsan Lekobideri esanaz:

—Hara, Lekobide, Peru nire gizonak ere parte hartu behar dau gure semearen izen-jartzean eta berak hain estimatu eukan esbastica honetan “I.Z.” agertzen danez, ez daukazu hizkiok barne diraneko izenen bat edo beste?

—IZAR! Bai, horixe IZAR! —eragoion esaten Lekobidek leihotik zerura adi.

—Gustatzen jat —erantzun eutsan Mariak—, Izar, polita izatez eta esatez! Peru balego hemen egun hau ikusteko!

Lekobidesea bateatu baino lehen hasi jakon Izar deika bateorako garbitu eta janzten eban bitartean. Han ebilen, Izar hau, Izarri hori, Izarrentzat bestea, magalotsean etxaguntza guztitik pozaren pozez arteak ere hartu ezinik.

Lekobidek zalpurdia inoiz baino hobeto apaindu eban. Maria emaginagaz geratu zan etxean beste hirurak eleizara joiazan bitartean. Laster zabaldu zan Altamira eta inguruetan jaiobarriarena eta bateo-kanpaetara herri osoa jabetu zan.

Abade misiolaria ere han egoan Bazko-meza aurretik bateatzeko itxaroten. Lekobide ere heldu zan bere zalpurdian eta umea besartean dala, abadeagana hurreratu zan inguruko herritarren eupada eta txalo artean.

Bateatu eben eta eleizan sartu Izar kristau barria. Aitabitxi-amabitxiak egin ebezan euren promesak amaren falta baten kristaubidean heziteko bateatu barria.

Lekobidek ez eban bere aldian Bazko egun pozgarriagorik ezagutu. Bateoa lehenen-

go eta Bazko-mezatan bazkoazkoaz bete ostean, ospakizun berezi bat egin eban Altamira osoan. Urteko \* zezinetarako eukazan zekor eta bigantzarik ederrenak hil eta jan egin ebazan herritarrez inguratuta. Egun handia benetan, izatez eta ospatzez.

Egun batzuk pasatu eta Mariari seme-libratzearen ondorioetatik saneatu zanean hauxe esan eutsan Lekobideseak:

—Maria, zuk ezin zenduan gure Izarren bateoa ospatu baina saneatu zaran ezker, \*ermakariak ospatu behar doguz Altamirako andra guztien artean eta gainera zera, kendu zeinkez laziertuna-harriok, behin semea bateatuz gero ez dozu eta begizkoaren bildurrik zertan izan.

Egun ederra igaro eben ermakarietan, barriketea ez zan falta baina tira, bihotzez onartu eben etxaguntzako sein barria.

Ermakariak ospatu bitartean, Lekobide itzi eben sentzain eta arlo horretarako lotsorra izan arren, abestu eta guztiak egin eutsazan

Izar umetxoari. Abestu, ez kanta bat, \*lo-arrazorakoetatik hasi eta San Martinen hamabi egiak kantatu arterainokoak.

Dana zan poza Altamirako etxaguntzan. Danak egozan Izar umeari adi, nork hobeto esango. Mariak, lehenengotan, gaelikoz kantatzen baeutsazan ere laster ikasi ebazan Le-kobidegandiko euskal abestiak.

Abesti asko eta asko ikasi ebazan Mariak baina bere semeari euskeraz lehenengo abestu eutsana hauxe izan zan:

*Obabatxua lo ta lo  
zuk orain eta nik gero  
zeuk gura dozun orduren baten  
biok egingo dogu lo.*

*Obabatxua lo ta lo  
zuk orain eta guk gero  
mutil handia haziko zara  
loloak eginez gero.*

*Obabatxua txingorrin gorri  
ez egin lorik basoan  
azagariak jan ez zagizan  
bildotsa zaralakoan.*

Benetan ere, giro ederrean hazi eben Izar umea. Izarren haurtzaroko egunak zoragarriak baziran, gau-iluntzeak ez ziran gitxiago.

Urterako oinez ere ikasi eban Izarrek. Osasuntsua zan. Elgorririk ere ez jakon etorri eta bere \*hazkaia inorena ez lakoa zan.

Berbara ere laster etorri zan. Hasieran nahaste apur bat ere baekarren bere berbaikun, Mariak, jakina, gaelikoz ere egiten eutsan eta.

Dana dala, euskerea eban nagusi. Lekobidek makina bat kontu-konteta egiten eban gau-iluntzetan supazterrean. Errezetan ere irakatsi eutsan, izan ere, Lekobide sinismen handikoa zan eta.

Lekobide umetuta egoan eta inon diran dantza, jolas eta itzulimurdiak egiten eutsazan Izar umeari pozik eukiteko. Nekatzen zanean, jarri sutondoan eta Lekobidek \**“atxea-motxea”*-ka emon erazten eutsan denporea. Izarrek behingo baten ikasi eban jolas horren abestia:

*Iaun Zuria*

*Atxea motxea konilipan  
zeure semea errotan  
errota txikerra klin-klan  
Katalina bentan, korrentan  
tipirripiton, Martin zapaton  
kañabera tronpeta  
lau kirikon.  
Txirripi-txarrapa...  
Txaust!  
Pispit ala koskot?*

*Atxea-motxea konilipan  
zeure semea errotan,  
joan nintzan basora  
topa neban erbi bat  
jaurtin neutsan harri bat  
atera neutsan ezkerreko  
begi gorri handi bat,  
zelemina kanpa...  
txaust!  
Pispit ala koskot?*

Urteak aurrera joiazan eta Lekobidek eskolak eta guztiak emon eutsazan Izar ume kaskonduari. Egotez ez egoan eskolarik, baina urli komentuko abade jakituna izan zan Izarren irakaslea. Latin, greko eta gainetikoak ere irakatsi eutsazan.



Egun baten, iluntzetako sutondo egotaldi baten, Izarrek ezin eban bere poza barruan euki eta esan eutsan Lekobideri:

—Badakizu gaur zer kontatu deustan abade maisuak?

—Zeuk esango dozu —erantzun eutsan Lekobidek irribarrez.

—Ba, Tartaroren ipuina kontatu deust, bai, harena, Greziako Ulises-en garaiko begi bakardun jentilarena, eta zuk zeuk ere badakizuzala holako kontuak esan deust, egia da aiti-ta Lekobide?

—Bai, holantxe da Izar maitea, zenbat gura eta harexen beste dakitsudaz. Baina hemengo jentilak edo basajaunak ez jatzuz bardinak, baina tira, begietan ez bada ere, beste gauza askotan badabe antzekotasuna. Aditu, kontatu egingo deustut neure aitari entzundako Peru olagizona eta jentilaren arteko ezbaia:

“Behin baten jentil indartsu bat joan eizan gizonen herrira gizona ezagutzeko asmoz.

Herrira hurreratzean ume bat aurkitu eban eta esan:

—Hi gizona haz?

—Ez —erantzun eutsan umeak—, oraindino ez baina izango nok!

Aurreratxoago joan zanean agure bategaz egin eban topo eta itaundu:

—Hi haz gizona?

—Ez —erantzun eutsan hak ere—, izan nintzan. Gizona gura badok, jo olara!

Joan zan ola egoan tokira eta olako atepak jo ebazanean eta gizona nor dan itaundu, Peru olagizonak urten eutsan tenaza goriekaz eta sudurretik oratu. Orduan jentilak, minaren minenez, esan ei eban:

—Benetan ere, gizonak gu geu baino ere indartsuagoak dira —eta basora jo eban barrien barriz.

—Aitita Lekobide, Tartaroren ipuina baino zurea gehiago gustatu jat!

—Bai? Ba, horren antzekoak gura beste dakidaz. Kontatuko deusudaz, iluntzero-iluntzero. Orain goazen afaldu eta lo egiten, bihar Santimamiñera eroan behar zaituet eta, ama eta biok.

Mariak ere entzun eban Peru olagizonaren ipuina eta begiak bete egiten jakozan bere Peru etorkolako gogora, baina beragandik kanpo ez zan beste inor enteratu, Lekobide bera ere ez, lepoz egoalako sutondora begira.

Hurrengo egunean, tertzioz jagi ziran. Lekobide kukurrukuagaz iratzartu zan eta dan-dana prestatu eban, zalpurdia, argizaiola pare, zurezko eskailera bat eta behar eben guztia.

Lekobidek Maria Santimamiñe lehenengoz ikusten eroan ebanean, geratualdi batzuk egin ebazan baina oraingoan artez joan ziran Santimamiñeko kobazulora.

Izar ezin zan geratu ere egin pozaren pozez, eta ipurdian gatza eta orpoetan harrak eukazala zirudian. Santimamiñeko kobara

heldu ziranean sua egin eban Lekobidek ohizko zan igeska sukarri-txispaz isiotuaz. Izar, dana zan galdera eta Lekobide erantzuna. Eta Izarren jakin-egarria asetu zanean esan eutsan Lekobidek:

—Aditu, Izar, zu lehenengoz zatoz hona, zure ama birritako aldiz baina gaur bioi erakutsiko deusuedaz hor barruratxoago gorantz heinean dagozan horma-irudiak, zure amak ere ez dauz ezagutzen oraindino. Kontu handia euki eta neure esanean ibili, lapraskadaren baten jausi eta amildu ez gaitezan.

Lekobidek hartu eban eskailerea eta behar zan lekuan kokatu. Gero, isiotu egin ebazan argizaiola biak, Mariarentzat bata eta beretzat bestea. Tanda bitan egin eban egitekoa Lekobidek. Lehenengo Maria eroan eban horma-irudien harri-gelara eta han itxaroteko agindu Izarregaz beste hainbeste egiteko.

Han genduzan hirurak. Argizaiolen argitara horma-irudiak ikusten. Lekobidek hango irudi guztien barri emon eutsen ama-semeoi. Mariak argizaiola Izarri pasatu eutsan une

batez eta esku batuz Izarri berari heltzen eutsan eskutik eta besteaz kendu ere egin barik eukan esbastikeari. Maria sinistu ezinean egoan misterio eta errealtate haren erdian. Izarri ostera hurrengo egunean abade irakasleari irudiak egiteko ideiak etorri jakozan, jakina, bakoitzak bere iragaztontzitik iragazten eban ikusten ebana.

Harri-gela zoragarria guztiz ezagutu ebenean, Izar izan zan lehenengo ahoa askatu ebana Lekobideri itaunduz:

—Aizu, eta norainokoa jatzu hau kobazulo hau?

—Hau, batek badaki! —erantzun eutsan Lekobidek—. Esaten dabe itsasoraino heltzen dala, baina nik dakidala behintzat, inor ez da ailegatu sakonetaraino. Gehiago oraindino, entzuteak dagoz, bat baino gehiago sartu ere egin dala oso barrura baina ez dala gehiago ikusi. Horregaitik ba, kontuz! Ikusten ez dan lekuetan begiak ere ez dabe balio.

Kontu handiz bajatu ziran eta urten kobearen atakara. Behin haraz gero, amatatu argizaiolak eta han inguruko \* artepe baten bazkari izki bat egin eben tripa-zorria kendu eta beroan sartzeko. Arrastian, etxera artez etorri beharrean Gernikako arbola ikusten joan ziran, jadanik, Izar bera ere, arean hazitxoa zalako. Behin Gernikako arbolaperaz gero, Lekobide hasi jakon Izarri haritz haren zertzertarakoak azaltzen:

—Izar, maitea, ez dakit ulertu ere egingo dozun baina hementxe, arbolape honetan alkartzen gara Bizkaiko etxagun nagusiak geure gora-beherak ebazteko. Deialdiak egiten doguz beharrizanak doguzanean eta horretarako adar edo bozina-mendiak darabilguz.

—Zertzuk dira ba, adar edo bozina-mendiok?

—Ba, aditu, Izar, gauza bat zelakoa dan jakiteko, norbera bertatik ibilita egotea lakorik ez dago, baina gaur horretarako astirik euki ez arren, labur baino ez bada ere azaldu

egingo deusut apurtxo bat etxerantz joanean-joanean. Udarantz, gura dozun baten joan egingo gara bost mendiotara, batzuetarako egun bat baino gehiago behar izan arren. Merezi dau eta ez gitxi mendiok eta euren inguruko gora-beherak ezagutzeak. Gustatuko jatzu, ikusiko dozu!



Esan eta egin. Igon eben zalpurdira eta Lekobidek argi itzi eutsan Izarri zelako adarrotsa eta sugarrak egiten ebezan bost mendiotan Gernikako arbolapean batzarrak egiteko seinale lez. Izan ere, dana mendi, dana ibar eta dana ibai dan Bizkaia honetan, batekoa ez

bazan besteko adarrotsa edo eta sugarrak entzun edo eta ikusi egiten ziran.

Altamirarako bidean, eguzkia sartza-mendian sartu jaken eta Izaro gainean ilargia bete-betean ikusi eitekean, arto-urunezko talo-aren antzerakoa.

Behin Altamirako etxaguntzaraz gero, laurak lauretara afaldu eben eta hurrengo egunean \*erantatzerik ez eukenez, berbaz-berbaz ekin eutsien \*belurarte.

Izar poz bitsetan bizi bazan, Lekobide ez gitxiago, bere irakatsiak ondo baino ere hobeto ikasten ebazalako Izar gazte bizkorrak. Egia esateko, Izarrek danerik ikasi eban egin ere. Labrantzan dana ekian, arrantzan beste hainbeste, ehizan parebakoa genduan eta eskolak beste inork baino hobeak ebazan, abade jakintsuari esker. Gizatasun arloan, nor-tasun handikoa zan eta bihotz zabalekoa. Herria maite ez eze, bihotzean barruan eukan. Gernikako arbola, aldean eroiala zirudien.



Urteak aurrera joakozala, bihozkada batek joten eban Izar. Zeinek? eta bere aita nor zan jakiteak.

Lekobide bere zereginetan joan zan egun baten, Izarrek amari itaundu eutsan bere aitarren barri eta:

—Hara, Izar neure bihotzekoa —erantzun eutsan amak negarrez—, sinistu ere ez deustazu egingo baina hauxe eta hauxe da gure historia, lehengoa eta oraingoa. Ez deustutan esan gura izan zeuk itaundu arte baina egin deustazunez gero hortxe dozu egia, garratza batetik eta gozoa bestetik. Nik neuk biak eza-gutu dodaz, zuk Izar maitea bata bakarrik, gozoa. Aitaren barri, itsasoak bakarrik daki. Berak esanda dakit umezurtza zala, ia-ia bakarrik hazia Santimamiñe inguruko bazterren baten. Zuk orain, Lekobide daukazu aitatzat, neuk ere bai ze gureak hemen izan beharko dau. Zu zeu hemengoa zara, euskal odola daroazu zainetan eta ni neu ez noatzu bakarrik izten. Zahar on egin gaitezala Lekobiderenean!

Izarrek ondo baino ere hobeto ulertu eban ha egoerea eta bihozberatu beharrean, indarbarritu egin zan Lekobideren aitordetzan, amari inoiz ez lako besarkada bat emonez.

Udako egun eguzkitsu baten, Lekobide bastak iminten egoan bere zaldi onen biei eta Izar ondoratu jakonean esan eutsan:

—Gaur, Sollubera joan behar dogu, adar edo bozina-mendietarik hurrena dogulako. Zaldiz joango gara joan ere, zalpurdiz ezin igon leitekkelako goiko tontorreraino.

Izarrek lagundu egin eutsan Lekobideri zaldira igoten eta berak ere salto bat eginez martxan jarri ziran. Han joiazan biak bietara Sollubeko mendia gora bidezidorrik bidezidor, mandazain bideetatik.

Sollubeko mendi kasketera heldu ziranean, jaitsi zaldi gainetik eta oboen-oboen gozatu ere egin ebezan itsaso zein mendi barruetaranzko paisajeak. Beso eta zankalosteetako nagiak atara ebezanean, jarri egin ziran itsasora adi Izaro aurrez aur ebelarik. Isil-isilik

egozan euren adikunea itsaso eta zeruaren arteko angeluan galtzen jakelarik.

Lekobidek aspaldirik eukan ezbai bat bihotzean. Ez ekian argitu ala ez Izarri bere historia. Itsasora begirako isilune haretan, inoan berekautan: “Gaur baino une egokiagorik ez joat aurkituko eta esan egin behar jautsat egia Izarri”.

Pentsatu eta egin. Asko kostata baina egia jakiteko eskubidea eukala pentsatuz holan esan eutsan Izarri:

—Izar, hartu eizu sakon arnasea gauza handi bat esan behar deutsut eta. Honezkero, baten baino gehiagotan itaundu izango zeuntzan zeure buruari zure zeure nondik norakoa ezta? Ba, esan egin behar deutsut bihotzeko dardarikara eta guzti.

—Badakit Lekobide nire neure guztia! Bihotzez eskertzen deutsut, baina badakit. Neure amak kontatu eustan argi eta garbi, baina ikusten dozunez ez dot aldatu nire bizimo-

dua. Pozik nago, nahiz eta batzuetan itsasorantz begiratu aita Peru gogoratuz!

Lekobidek bete eban bere kontzientziaren zorra eta lehen baino pozago sentitzen eban bere burua Izar zorionsu ikustean.

Sollubeko gana itzi baino lehen, Lekobidek eskua jaso eta Izaro eta Ogoño bitarteko haitza erakutsi eutsan Izarri esanez:

—Aditu, Izar, hantxe aurkitu neban zure ama, lamiñak orraztuten urtetan eben Izaro eta Ogoño bitarteko haitzean, baina, jakitun zagozanez, itzi daiogun \*komertazio honi eta gozatu eguzkipeko lur berde eta itsaso urdina.

Eguzkia berotzen egoan, kanikulea, eta zaldiak ere artekatuten hasita. Horregaitik, igon zaldiotara eta egurdarte zoragarria emon ostean Altamirara bueltatu ziran bata bestea baino pozago.

Beste egun baten Oiz mendirako ditea hartu eben. Oiz mendia zan beste adar edo bozina-mendietariko bat. Sollube baino urrunago egoanez, egun pare baterako joan ziran.

Durangorainokoa zalpurdiz egin eben. Lekobidek Izar aurkeztu eutsan Durangoko etxagun nagusiari eta han emon eben gaua hurrengo egunean, goizean tertzioz Oiz gana joteko.

Halantxe egin eben. Tertzioz jagi eta zaldiz joan jakuzan mendia gora Oiz mendi tontorreraino. Behin goraz gero, Solluben lez, oboen-oboen inguru eder guztiak ikusi ebezan eta jarri egin ziran Lekobideren erakutsi eta irakatsiak Izarrengantzeko. Lekobidek, lehenengo, Markina aldea erakutsi eutsan aldi bateko Euliski jentilaren kontu eta guzti. Gero ekialderantz adituz, hauxe esan eutsan Izarri:

—Aditu, Izar, zuk ez dakit jakin ere egingo dozun, baina entzuteak dagoz, hemen, egunsentian eguzkiak lehenengo jotzen dauan lekuan urregorria dagoala lurpean eta basajaun edo jentilak urregorritan etorten zirala euren kobazuloetara eroateko.

—Goazen ia egia dan hori ikustera!  
—erantzun eutsan Izarrek.

—Hobe itzi kontuok! —esan eutsan Lekobidek—, horreek antzinakoen asmakizunak izango jatzuz, zer gura eta haxe asmatu! Erdu hona, aditu eizu hegoalderantz. Hortxe daukagu aurrez aur Anbotoko mendi famatua. Horkoxea jatzu Mari Anbotokoa. Zazpi urte egiten ei dauz Anbotoko koban eta beste zazpi urte han, harago dagoan Gorbeia mendi ondoko Superlegor kobazuloan. Garretan ibilten ei da mendirik mendi batez ere Anboto eta Gorbeia bitartean. Gorbeiara joango gara beste egun baten. Ha ere, adar edo bozina-mendia dugu, inportanteena. Hor dogu baita, hor aurrez aur Urkiola-mendi ere San Antonio baseleiza eta guzti. Ene! eta San Antonio aipatuz batera, jentilen pasarte bat gogoratu jat, Durangoko etxagun nagusiak behinola kontatua.

—Kontatu eidazu, Lekobide, hain nago pozik!

—Hara, Izar, jentilen barri, mendi, haitz zein baso askotan aurkitu geinke batez be Gorbeia ingurutik haronako bat eginez gero.

Hau kontu hau Mañari eta Urkiola bitarteko bati entzuneko a jatzu:

“Behin baten, Anbotoko kobazuloaren aurreko landan, Durangoko neba-arreba bi egozan euren ardiak jagoten, Gabon egun bateko egurdartean.

Eguraldi hotza baina ona egiten eban eta ardiak be zoli-zoli ebilzan landa-bedar txikia baina gozoa jaten, neguaren hasierako egun-argi laburrenean.

Eguerdia heldu zanean, neba-arrebok, Anbotoko kobazuloko atakara hurreratu ziran bazkari sikua egiteko asmoz. Zabaldu lepoko morral-zakutoa, atera gaztaidun otarteko banna, bigilia edo haratuztea gordez eta jateari emon eutsien noizbehinka ardo zahatoari txurruplin batzuk eginaz.

Behingo baten egin eben neba-arrebok egun haretako bazkaria baina gose apur battegaz geratzea hobea baino ez zan, etxera itzuli orduan, Gabon gaueko afariari ganosoago ekiteko.

Handik lasterrera, etxera bidea hartzeko egozala, neskeak suge bat ikusi eban euren ondoko ogi-apurrak jan guran edo, eta badi-notso bere nebeari:

—Hi, mutil, begiratu egik hona, suge handi bat jaukaguk ahotik ezpia agirian ia-ia geure ostikopetan ba eta!

—Ene, bai barriz! —erantzun eutsan nebeak—. Hau suge hau nik neuk dominatuko jonat, ikusiko dona!

—Kontuz ibili hadi mutil, badaezpada, parte txarrekoren bat izanean be, gaur Gabon eguna joaguk eta.

Artzain gazteak, itzi bere eskuetako makila mehea, hartu han pagadui baten barda luze bat eta sugea hiltera zihoan. Sugea, bien bitartean, Anbotoko kobara barrura sartu jakon eta hango barruko sakonetako estarian estaldu. Artzainak ahalegin guztiak egin eban ha sugea jo buru-buruan eta tragetako baina dana alperrik. Halakoren baten, kobazuloan barrurantz joiala, zer? eta han kobazuloaren sakon-sakonean basajaun bat aurkitu eban



ikatz a egosten. Ikaratu egin zan. Hankak dar-dar eukazan, bekokian izerdi larria, gorputzean ikara bihotzean taupada estuak eta buruan zer pentsatu handia! Egoera horretan egoala, ikatz txondorraren ondotik basajaunaren hots honeek entzun ebazan oihartzun eta guzti:

—Ez hadi larritu, mutil, ez deuat ezer egingo eta! Hurreratu hadi nire neure ikatz txondorrera. Hator eta esan: «Hire aitak egiten jok nik neuk lango ikatzik?»

—Ez jakiat ba! Baina egur-bardin, danak be antzerakoak izango dozak! —erantzun eutsan artzainak \*bildurkilik.

—Ba, bardinak diran ala ez jakiteko, hartu egik esku biak bete ikatz eta atara argitara han hobeto ikusteko!

Artzain gazteak, hartu eban esku biak bete ikatz eta kobearen atakara helduz batera bere arrebeari erakutsi eutsan. Arrebeak, ha altxor ederra ikustean badinotso bere nebeari:

—Hi, mutil, zer dakark hortik barrutik?

—Zer ekarriko jonat ba, basajaunak emoneko ikatza!

—Ikatza? —esan eutsan arrebeak begiak zabal-zabalik—. Hau urregorria dok ba eta! Joan hadi barriro barrura eta eskatu egiok gehiago aberatsak izango gozak eta!

Mutila barrien barriz joan zan kobara barrura eta holan esan eutsan hari basajaun ikazginari:

—Hi, nire aitak ez jok egiten honelako ikatzik. Honelakorik ez jagok gure herrian, ez eta gurekoen artean be, herriko ikazginik onenak izan arren. Horretara, emongo deustak apur bat gehiago nire neure etxeko eta herri-koei erakusteko?

—Bai, mutil, zenbat gura eta harexen beste hartu, baina kontuz! Hor koba sakon-sakonean deabrua jagok lo-arrantzaka eta hire zarartetara itzartuten badok, hireak egin jok!

Artzain gaztea, aberastu nahiaren aberastu nahiaz, fraketako boltsa biak, kolkoa eta sorbaldetatik dangilizka eukan morral-zakutoa beteten hasi zan urregorritz. Baina, danaguran,

zarata handiegiak egin ebazan eta jakina, deabrua itzartu egin jakon bere lozorrotik. Itzartu bakarrik ez, deabrua oso hasarre plantatu jakon eta orroe-zantzoka hasi zan burduntzi luze bat eskuetan hartuz. Ha bai zala larrialdia! Artzainak ez ekian zer egin eta es-tualdian basajaunari esan eutsan guztiz kaka-dariotuta:

—Hi, zer egingo joat orain?

—Zer egin? Ba ospa egin hemendik lehen baino lehen! Deabruak harrapatzen bahau hireak egin jok betiko! Joan hadi agudo!

Artzainak, itzi bertan behera urregorriok eta kanporako bidea hartu eban basajaunari esana eginez. Kobearen atakara heldu eta bere arrebea ikusi ebanean hauxe esan eutsan pausurik galdu be egin barik arduraz beteta:

—Hi, ezin jonat kontatu orain hor barruan gertatutakoa, joan hadi etxera gautu baino lehen eta tertziarako heltzen ez banona Gabon afaria ondo ospatu, nik nahikoa jaukanat atzerik hara datorkidan deabruari ospa egiten!

Arrebea, ikaratu egin zan bere nebearen  
berbak entzutean baina ikara handiagoak eto-  
rri jakozan handik lasterrera deabrua kobatik  
urtetan ikusi ebanean.

Neska errukarria negarrez joian etxe-  
rantz eta bereengana heldu zanean hasi jaken  
esaten berbartu eta guzti:

—Ene ama! Gure mutila hortik zehar  
dabil deabruari ospa egiten eta ez dakit Gabon  
gaua egiteko bizirik etorriko jakun be!

—Ez estutu! —erantzun eutsan aitak—,  
gure mutila bizkorra da eta ondo ezagutzen  
dauz basabideak, goizago edo beranduago  
joko dau etxea. Guk errosario errezatuko dogu  
eta Jaungoikoak gura dauana izan daitela!

Bien bitartean, han ebilzan, guztiz gau-  
tuta, artzaina aurretik eta deabrua atzerik hara  
pagaperik pagape, mendirik mendi eta landa-  
rik landa.

Gaueko iluntasunean ez eben alkar ikus-  
ten baina alkar barruntatu bai, eta bata geldi-

tzen zanean bestea be bai. Holan ibili ziran luzaroan.

Orduak aurrera joiazan eta mutilak etxera joan gura ebanez Gabon gaua ospatzeko bere buruari esaten eutsan:

—Zer zuhurtasun erabiliko joat nik honi deabru honi eskapatzeko? Mugitzen banok, bajatork gainera, baina, a bai, bajakiat zer egin!

Artzainak pago punta batera igon eban katua sagutan baino isilago eta handik ahal dan guztian jaurtin bere morrala. Deabrua, zeratea entzun zan lekura abiatu zan bete-betean artzaina izango zalakotan baina ezer be ez. Gauzak holan, artzaina konturatu zan deabrua apur bat urrundurik egoala eta ahal danik eta isilen jaitsi pagotik eta behatzen puntan joian astiro-astiro. Halako baten arbolapeak itzi eta ailegatu zan artzaina Durango parteko landa batera baina beste arerio bat agertu jakon, ilargia. Ilargipean ikusi egin eikean deabruak eta halantxe egin eban.

Deabrua askoz gorago egoan baina bere zanko luzeakaz berehala harrapatuko eban ha

mutil gaztea. Mutilak deabruaren amorrurazatak entzun ebazanean, ezin dan lekutik be indarrak atarata, aurrera jo eban hur eukalako bere etxea.

Etxekoak be arduraz beterik egozan. Orduak aurrera, Gabon afaria prest baina ez euken humorerik ospakizunetarako.

Artzain gazteak ezin eban gehiago eta deabrua gainera etorkola konturatzean zoruan etzan zan bereak egin ebala pentsatuz. Pauso batzuk bakarrik falta jakozala deabruari artzaina harrapatzeko, zer? eta, tan-tan, tan-tan, tan-tan! Durangoko eleizako kanpaiotsa entzun zan, jakina, Gabon gaueko hamabietako mezako kanpaiotsa! Kanpaiok entzun ziranean, deabrua botere edo ahalmen barik geratu zan eta ezin eutsan ezertxo be egin artzain guztiz nekatuari.

Deabruak alde egiten ebala ikustean, artzaina, zutundu, Durangoko eleizan Gabon-mezea entzun eta bere etxera joan zan Gabon gaua ospatzen familiako batasunean.”

Barri guztiak eta kontu hau bitarteko, egun zoragarri bat igaro eben. Beherantzean Tabirako Santxo Estigiz Ortiñes etxagunari ere bisita egin eutsien eta gau-iluntzera Altamiran genduzan.

Izar pozik baino ere pozago ebilen Lekobideren maisutasunean eta irrikatzen egoan Gorbeiarda joan eta hango barri jakiteko. Horregaitik esaten eutsan Lekobideri:

—Ez dakizu zenbat baino gurago neukean Gorbeiarda joatea!

—Joango gara, Izar, egun batzuk barru guk geuk eta zaldia ere deskantsua hartzen dogunean, han gara. Baina, urruntxu dago Gorbeia gero! Oizera baino egun gehiago beharko dogu, hartzen dogun bidea hartzen dogula.

Lekobide pozez bitsetan egoan Izar gazteari dana erakusten eta hiru egun egin-eginak pasatu ziranean eta denborak laguntzen ebala ikusi, hartu zalpurdia eta gainetiko guztiak eta Gorbeiarda bideari eragoioen.

Lehenengo egunean Arratia zeharkatu eta Zeanuriko Lanpreabeko errota eskatu eben ostatua. Ondo baino ere hobeto hartu ebezan posaderu biok eta afaria ere alosokoa egin eben Lekobideren entzuteari esker. Afalostean, supazterrean, barbarorik ez zan falta.

Errota honen anteparan lamiñak bizi zira-lako entzutea egoan eta Lekobidek Izar gazte-ari gustua emotearren errotako \*uzamari esan eutsan hango lamiñen hondamendia kontatzeko. Uzamak, harrikoa egin-akabatuz batera, ez eban txit erdirik ere behar kontatzen hasteko eta hasi zan Izarri adikuna kendu ere egin barik:

—Lanpreabeko errota inguru honetan ezin ei eben gauzonik egin lamiñekaz eta betirako galtzeko usadio zahar batera jo eben lehenengo. Zein? eta honexetara: lamiñak esnea eske etorri ziran baten, esne irakina emon eutsen edateko eta ene!, halantxe galdu ei ziran beti-betirako, \*ametsorri eta \*bihozturiak erre eginik. Baina badaezpada, kristau ohitureari jarraituz, San Juan egunean jaiotako zekor bikoteaz \*intillatu edo tragaztu egin eben



boluaren antepararako errekea, baina ez edozein modutara, gurutzetara baino. Gehiago ez ei zan lamiñarik agertu.

Kontu polit hau entzun eta gero, alkar gabondu egin eben eta lastamarrazko ohera joan hurrengo egunean tertzioz ekiteko Gorbeiaiko aurgora-bideari.

Esan eta egin. Hurrengo goizean, goizeko inontzean urten eben Lanpreabetik Lekobidek, Izarrek eta bertako etxagunaren seme zaharrenak gidari lanak egiteko. Pagomakurrera heldu ziran lehenengo, gero Arrabara. Handik lasterrera Egiriñaon egozan, bertoko iturrian ur trago bat egiten. Behin Egiriñaoraz gero, zaldiok pago banari lotu eta oinez egin eben Gorbeia gainerainoko bidea. Lekobideri begiak ere lausotu egiten jakozan beste biak baino urteetan aurrerago egoalako. Izar izan zan lehenengo Gorbeia tontorrean. Beste mendietan lez, Lekobidek oboen-oboan, lau haizetarakoa erakutsi eutsan Izar mutil gazteari. Oiz mendira adi jarri ziran hirurak. Zelako

ikuspegia! Hirurak egozan isilik baina Izarren garaunak baeragoioen, zeri? eta Mari Anbotokoaren kontuari. Oizen esan eutsan Lekobidek Gorbeia kobazuloren baten egiten ebazala zazpi urte eta horren barri jakin gurean badinotso:



—Zu, Lekobide, non da ba hemen Mari Anbotokoaren egoitza?

—Hori, nik baino hobeto honek Lanpreabeko honek jakingo deutsu!

—Hortxe, Itxinako hazduian —erantzun eutsen Lanpreabeko mutilak—, hortxe dozue

Superlegorreko kobazulo ikaragarria. Hor, inon diran kontuak eta gehiago gertatu ei dira. Superlegorreko koba aipatzen dodan bakoitzean, aititak kontatutako ipuin zoragarri bat jatort gogora, zein? eta hauxe:

“Kristautasuna Euskal Herrira heldu barri egoala, Gorbeia inguruko herri txiki eta polit baten, olagizon handiki bat bizi zan bere ola zaharrean. Urteak joan urteak etorri, zaharkitu eta \*gauzeztandu egin jakon bere ola zahar maitea eta barria egitea pentsatu eban. Esan eta egin. Lehenengo, ola zaharrak eukazan gauza probetxugarriak aukeratu, gero falta jakon beste guztia lortu eta hasi zan ola barri hori egiten handikeriaz beterik. Behingo baten lortu eban ola barri hori egitea eta pozik baino be pozago egoan lehengo baino ola handiagoa eta hobea egin ebalako. Herriko zein alboherrietako beste olagizonak sorots egiten eutsien euren olatxoak ezerezean geratuko ete ziran bildurrez.

Egunak joan egunak etorri, heldu jakon olagizon handiki horri ola barria martxan

botateko eguna. Harrokeria ez jakon falta eta herri guztiari ezeze, beste olagizon apal guztiei be agindu eutsen bere ola moderna ikusten joateko gonbitea. Ha bai zala ikustea! Herri osoa ola barriaren inguruan, beste olagizonak be urruntxutik begira eta erdi-erdian olagizon handikia.

Danak isildu ziranean, olagizon handiki horrek hiru-lau berba botateko \*zautuko ton-tortxo batera igon eta badino:

—Hemen daukazue aspaldiko partez, inguru guztiko olarik handiena eta onena. Aurrerantzean ez dozue eukiko zeuon lan-tresnak logretako arazorik. Oraintxe, zeuon guztion aurrean botako dot martxan ola barri hau eta badakizue, aurrerantzean etorri danok neure ola barrira!

Entzuleen artean era guztietako harrerak ikusi eitekezan. Olagizon handikiaren bezeroak pozik, beste batzuk ezbaian eta hirugarren batzuk arduraz ea beste olagizon apalekaz zer gertatuko ete zan pentsatzen.

Handik lasterrera, jaitsi zan olagizon handiki hori igonda egoan zautu-tontoretik eta bere ola martxan botateko, anteparako uha-tea zabaldu eban ur-indarra joan ekion olari. Baina ur hori joaten haziaz batera, krisst-kraussst! zarata berezi bat entzun zan eta olak zirkinik be ez! Bigarrenez ere egin eta bardin!

Olagizon handikia ez zan ausartzen hirugarren intentoa egiten. Zuri-zuri egoan, kolorga, zer pentsatu ez ekiala herritar guztien berbaroaren erdian. Berbalotsa ez zan falta ez herritarren artean eta apur bat isildu zanean jendea, badinotso handik atze partetik beste olagizon apal eta zintzo batek:

—Hi, hor heure burua apurtzen egon beharrean, zergaitik ez hoa Gorbeia ondoko Superlegor kobara eta Mari Anbotokoari kontsulta eskatu. Inork esatekotan, harexek esango deua zer arraio gertatzen jakon ola barri honi!

—Ba, mutil —erantzun eutsan olagizon handikiak—, hori baino ez badok joan egingo naiakok lehenbailehen eta \*beren beregi joan be gainera.

Asmo horregaz etxeratu zan ha olagizon handikia, beste guztiak, harriturik, euren etxetara joiazan bitartean.

Gau luzeak asko igaro ebazan, baina ez halangorik. Inondik eta inora be ezin eban loak hartu. Gaueko pizti guztien hotsak entzun ebazan gauaro larri haretan.

Hurrengo goizean, tertzioz jagi, barausi, hartu zakuto baten biderako jakia, jantzi mendirako soineko eta oinetakoak, aitearen egin etxetik urtekeran eta Gorbeiako bidea hartu eban. Bajoian Superlegor kobarantz, arin joan be, inori berbarik egiteko intzigu eta adore handi barik. Mendian gora zala, hainbat artzain, mandazain, egurgin, ikazgin eta gainetiko ikusten eban ikusi be baina ez egoan berbagura olagizon handiki hori, harik eta bere barruko ardurea kendu arte. Joan eta joan, halango baten heldu zan Superlegorreko kobaren atakara. Barrura sartu orduko, atsedean apur bat hartu eban, izerdia sikatu eta arnases-tua kentzeko. Nasaitu zanean, zutundu eta

astiro-astiro sartu zan sartu be Superlegorreko koba nagusi eta ikaragarrira.

Ikaraturik egoan hango harri landuzko mahaiak, urregorritzko tresnak eta apaingarri guztiak ikustean.

Bazter guztietara adi joian kobazuloan barrurantz eta halango baten, handik sakonetik, berba honeek entzun ebazan:

—Nor dabil hor?

—Neu nozu —erantzun eutsan olagizon handikiak birdurkilik—, urli lekutako olagizona! Eta zu nor zaitut ba?

—Ni? Mari Anbotokoa!

—Ba zeugana nator kontsulta egitera!

—Jesarri hor harri landuzko aurki baten eta itxaron, atoan nozu zeure aurrean!

Olagizon handikia jesarri zan eta, esaneko moduan, berehala plantatu jakon Mari Anbotokoa bere ondoan.

Andre zoragarria zirudian, ondo jantzita, uleak ondo orraztuta, narru-azala urdin-urdina

eta berbaikuna gozoduna. Mari Anbotoko horrek, sagardoa atara eutsan basu baten eta olagizonak, ohitura eukanez, “Jesus” esan eta tragu bat egin eban. Olagizonaren harridurea eta ulertu ezina ikustean, badinotso dultze-dultze eta erdi irribarrez Mari Anbotokoak:

—Ez hadi ikaratu! Kristo jaioz gero ez hainbeste baina aurretik herritar asko etorri izan dok hona, nigana, kontsulta eskatzen. Beraz, nasai! Zerk hakar hona hain estu eta larri?

—Ba, hara, ola barri bat egin barri dot eta martxan botaten joan nazanean, krisst-krausssst! entzun ostean zirkinik ere ez deust egin eta berorregana nator kontsulta eske!

—Baina, martxan bota aurretik kristau-ohiturako bedeinkazinerik edo errezurik bota deutzazue?

—Ez ba!

—Ba, begiratu —erantzun eutsan Mari Anbotokoak—, hori ola barri hori deabruak jaukak lotuta eta martxan bota eta behar dan



moduan ibiltea gura badok, urli lekutako komentuko abadeak bedeinkatu egin behar jok Gabon eguneko gauerdian, gaueko hamabietan.

—Gabon egunean? —zirautson olagizonak—. Ba Gabonak, gaine-gainean doguz. Oraintxe gabilz \* gabonkariak prestatzen egun handiok ospatzeko!

—Holan badok hobeto, arinago lortuko dok ola barria martxan imintea. Orain joan haldi bake-bakean eta hurrengorako badakik zer egin. Ni neu hemen geratuko nok kristau-aroen ez jaukadalako botererik, baina zuok ospatu zintzo-zintzo egubarri kristautuak. Gehiago oraindino, hau urregorritzko basu hau eroan egik heugaz, edakeran bedeinkatu egin dok eta!

Olagizon handikiak eskerrak emon eutsazan Mari Anbotokoari eta kobazulotik atzerantz urtenez, etxerako bidea hartu eban urregorritzko basu eta guzti.

Gorantzean baino beherantzean adoretuago egoan olagizon handikia eta zantzo batzuk ere bota ebazan pozaren pozez. Olara

heldu zanean, inori ezer esan barik, jantzi domeketako soinekoak, hartu zalpurdia eta Mari Anbotokoak esaneko komentura abiatu zan. Arre!, arre! esanda bizkortzen ebazan zaldiok eta bajoian bideak betean herriko jende guztia adi itzita.

Komentura heldu zanean, saltu bat egin bere zalpurditik eta komentuko atean eupada bat egin eban eta abadea eskatu. Etorri jakon abadea eta olagizon horren urduritasuna ikustean, ezbehar gorriren bat gertatu zalakoan edo badinotso:

—Zer Jaungoiko gertatzen da ba hain estu eta larri etorteko?

—Zer gertatzen jatan? Ba, aditu: ola barria egin barri dot eta Mari Anbotokoaren esanetatik, deabruak dauka lotuta ola hori eta martxan botateko komentu honetako abadearen bedeinkazinoa behar dala jakin dot.

—Tira ba —erantzun eutsan abadeak—, gaur Gabon bezperea dogu eta bihar joango naiatzu. Gabon gaua zeuonean egingo dogu

eta gauerdiko hamabietan bedeinkazinoa botako deusagu ola barri horri.

Halantxe egin eben. Abadeak bedeinkazinoa boteaz batera deabruaren ikaragarritzko burrrrrrundada! bat entzun zan ola guztian zehar. Bedeinkazino ostean, trikitin-traukitin! martxan hasi zan mugitu ezinik egoan ola barria. Olagizonak, alde batera bota ebazan bere ordurarteko harrokeria guztiak eta herri-tar on lez biziten ikasi etorkizunean.”

Izar ezeze, Lekobide bera ere ikaratuta geratu zan ha ipuin zoragarria entzutean, eta ipuina dala jakin arren ikara-sartua etorri jakon.

Beherantzarako zutundu ziranean, Lekobidek argi itzi eutsan Izarri zergaitik zan Gorbeara adar edo bozina-mendirik garrantzitsue-na, izan ere, trokak edo izan ezik, ia Bizkaia osoa ikusten dalako bertatik.

Egun horretako gaua ere Lanpreabeko errota egin eben eta hurrengo goizean barrien barriz Altamirara, pozari eutsi ezinda bai bata

eta bai bestea. Maria eta Lekobidesea ere sinistu ezinik egozan Izarrek kontatzen eutsiezan barriekaz. Ez zan gitxiagorako, Izar zalako Altamirako etxaguntzako eguzki!

Egun batzuk Altamira eta inguruetan emon eta gero, udagoieneko uztaroz gero, astitsu ebilzanez, Lekobidek aste beteko joan-etorria egin gura eban Izarri Ganekogorta eta ingurumariak erakusteko.

Pentsatu eta egin. Izarrek ez eutsan ezeztik esan adar edo bozina-mendi bakoitzean inon diran kontuak ikasten ebazan eta.

Ganekogortara orduko, Zeberiotik zehar joiazan, Untzeta, Zeberio eta Orozko bitartean dagoan mendi punta politerantz. Bidean Aibelabe tontorraren hegoaldeko artadua zeharkatu eben, aurreragoan lurbel hezoetako bereasian atsedean apur bat hartu eta Orozko eta Zeberioko ergoienetik elbarrenerako ikuspegi zoragarria gozatu.

Behin Untzetaraz gero, \*binke Untzeta, egon ere huntz edo huntzorriz josita dago eta

mendi hau Zeberio aldeko troka-haitzetatik, Lekobidek hango hangotasun guztiak erakutsi eutsazan Izarri, besteak beste, gan-ganeko haitz bizian egindako \*hegillamua eta bertan egoan \*trabuko \*endemoniñoa, benetakoak balitzaz, beren beregi jentilak eurak erabilteko modukoa.

Izarrek ez eban halakorik inoiz ikusi eta bere harridurea eta guzti itaundu egin eutsan Lekobideri:

—Zertarako dan baino ez da hau traman-kulu hau?

—Hori? —erantzun eutsan Lekobidek—, aditu ondo, Izar, Orozkotik aurrerako Orduñarako bidean, “Malato” deritxon arbola bat dago eta horraxerainokoa da gure lurraldea. Erbestekoren bat agertzen danean, guk, bizkaitarrok horraxeraino defenditzen dogu geurea eta behin Malatoraz gero, armak bota. Baina, badaezpada, ondo jatorku hemen Untzeta mendian trabuko hau eukitea. Trabuko honegaz, kare-harrizko harri-bolak botaten dira txirran edo bilinbolan mendia behera,

inbaditzailea nondik nora, ba harri-bolak haraxe. Herritar askok jentil-bolak dirala uste dau, baina ez, defentsa-harriak dira.



Zuk jakin ere ez dakizu, baina garai baten mairuak hurreratu jakuzan, hor dago orain ere Gorbeiaiko Mairulegorreta koba famatua, eta \*eginen handia emon euskun gure herritik \*andafuerazko jantzia emoteak, baina tira, behingo baten bota genduzan Malato arbolatik harantz. Gaztelatar eta asturiarrak ere alkarlaguntza eskatu euskuen eta Malatotik harantz ere ibili ginan mairuen aurka. Baina, behin mairuak hegoalderantz bota ezker, hotzitzuz

joan dira gure gaztelar zein asturiarrenako hartuemonak. Orain ez daukagu mairuen bildurrik baina gaztela-asturiarrak eurak dabe gure herriaren egarria eta guk prest egon behar dogu zein arerioresen bat geureaz jabetu. Uler-tzen dozu orain gure defentsa-bidea?

Untzetan egotaldi bat egin eta gero, beherantz etozan Zeberioko Iruatxeta eta Udiarra partetik. Udiarra auzunera ailegatu zira-nean, badinotso Lekobidek:

—Izar, zuk jakin ere ez dozu egingo hemen Udiarran zer gertatu zan!

—Ez ba!

—Ba, begiratu, Zeberio helbarren aldeko goietan gagoz, Udiarra auzunean, Orozko eta Ugaoren mugan, Nerbioi ibaia ibar-haranetatik testigu dogula, eta egiatzat entzunda daukadanez, hortxe, Zeberio eta Ugaoren lindero-linderoan Amabirjinea agertu zan elorri baten gainean eta ugaotarrak ermita bat egin eutsien lehenago Gorbeiako artzainak barrutiak banatzeko alkartzen ziran harizpean. Hantxe dago Udiarrako Amabirjinea.

Zeberio helbarreneko Arkulandako harri-pausoak dagozan erreka-arroan ura edaten imini ebezan zaldiok eta gero edeak astinduz Ganekogortako bidea hartu eben.

Zeberio itzi orduko, Lekobidek Saldaingo txakurraren kontua ere kontatu eutsan Izar gazteari irakasbidean. Harako zelan joan zan Saldaingo txakurra Uriondo auzunera tertziozago bazkaltzeko, baina, zergaitik hargatik, han, bazkaldurik aurkitu ebazan eta barriz itzuli behar Saldainera, baina berandu. Azkenean, ez batean ez bestean, buztana dala hankartean!

Ganekogortarako bidean hainbat jendegaz egin eben topo eta han Zollo partean gaztanudi handi batetik joiazala, zollotarrak gaztaina erazten eta \*kirikiñusiginen ikusteko aukerea izan eben.

Handik aurreratxuago, zer? eta ikazginak ez ebezan ba aurkitu! Lekobidek ahoa askatu baino lehen non dinotson Izarrek:

—Ene!, zer jatzuz ba horreek?

—Ikazginak —erantzun eutsan Lekobidek—, pago-egurrezko ikatza egosten dabilz.



—Eta zelan egiten dabe ba?

—Ba, hara, nik neuk ere ez dakitsut patxadaz azaltzen baina euretariko batek egingo deutsu, bide bat zelangoa dan jakiteko, norbera bertatik ibilita egotealakorik ez dago eta.

Lehenengo ikatz-txondorrera hurreratu ziranean, Lekobidek samur-samur berba egin eutsan ikazgizon adituenari eta esan Izarri ikatz-egostea azaltzeko.

Ikazgin horrek, atsedenaldi bat hartu eban bere ordeztu beste bat iminiz, txondorra jagotea behar-beharrezkoa dalako, eta zehatz-zehatz azaldu eutsan ikatz-egostearen beharlekua.

Egia esateko Izarrek ez eban zehatzegi ulertu baina bihotzez eskertu eutsan hari ikazginari harek berak emondako azalpena.

Igo eta igo, heldu ziran Ganekogorta gainera eta Lekobidek hango ingurumari guztiak erakutsi eutsazan Izarri. Beherantzean Pagasarritik etorri ziran eta han etenalditxo bat egin eben. Aurrez aur Bilbo euken, haragoan itsa-

soa eta ekialderantz Padura zelaikadea. Lekobide dana zan esplikazioa. Padura dala eta, gaztetan ikasitako latinezko azalpen guztiak ere emon eutsazan Izarri. Lekobidek baekian jakin ere, Padura zala izen zaharra, geroagoan, Padula eta azkenean Padura, horixe zalako erromatarrak zelai zingiratsuak adierazteko erabilten eben izena.

Ikusiak ikusi eta entzunak entzunda, Bilbora jatsi ziran eta berton emon ebezan pare bat egun itsasorainoko guztia ezagutzen.

Bilboko hori egin ebenean, Lekobidek ikusirik Izar ibilteko prest egoala badinotso birritan pentsatu ere egin barik:

—Izar, Bilbon gagozan ezkerro, zer deritxazu etxera barik, segituan Kolutza mendira joateari?

—Joatea baino ez dago! —erantzun eutsan alimoso Izarrek.

Eta joan egin ziran. Bilboko zelaia igaro ondoren, Basurtotik gora jo eben Kastrejana-ko aurgorari ekinez.

Joanean-joanean, Kolitza mendi tontorrera heldu ziran. Leku zoragarria benetan. Zelan edo halan esateko, Ibaizabal eta Nerbioi ibai bikoitzen eta Balmasedako ibarraren talaia zirudian. Zelango bedarduiak era guzti-etako ganaduentzat!

Izar, ia-ia zorabiatuta egoan, edan bako hordiaz, eta hango hangotasunak ere jakin gurean badinotso Lekobideri:

—Beste lau mendietan pasadizu edo ipuinen bat kontatu deustazu, lurralde honetarako ez daukazu ezer ala?

—Ba, egia esateko, ez besteetan beste —erantzun eutsan Lekobidek—, baina gura badozu, hor, lehentxoago igaro dogun Kastrejanapeko hartubiaren historia sinistezina kontatuko deustut. Hau kontu hau, Zeberioko etxagun nagusiari entzunda daukotsat Gernikarantzako baten. Hor joatzu:

“Baten, Kastrejanako neskato bat Bilbo-ko jaietara joan ei zan eta gustura ibili be antza erromerian bere lagunabarrekaz. Orduak aurrera joakozan eta gesu baten ilundu egin

behar, eta, lagunok bertan behera itziz abantean mobitu ei zan Kastrejanako aldatsa gora orpoetan har barik, begiak bota beharrean eta bularrestuagaz arnasea hartu ezin dauala.

Etxe aitzinera ailegatu zanean gogor baino gogorrago hartu eban aitak eta mihiengan har barik badinotso:

—Zer tertzio dona hau etxera etorteko, ez donat argi esan hortik zehar \*zeinakio egon beharrean \*abemariak jo aurretik etxera etorri eta iturriko ura ekarteko? Ba orain, hartu eina jarroa eta joan hadi agudo iturriko uretan \*egarriz tximeltan gagozana etxeko guztiok eta! Gainera, ondo irakutzi eina jarroa, honezkero egurdiko ur egonduagaz \*sumikea eta ugeldarrirainoko guztiak eginda eukiko jozana eta!

Neskatxi horrek ez ei eban txitik be atara, baina bai zuzi baten hartu iturrira bidea guztiz gautu orduko egiteko iturriko haronako hori.

Iturria urruntxo eukan eta gainera erre-kaz bestalde. Gaua gainera gainetu behar jakon eta, estukuraren estukuraz badino \*bere-

kitan: «Oraintxe ez jatak etorriko \* parte txarrekoren bat hemetixek horraxa, iturrira, zubi bat egiteko? Askok balekik zenbat baino gura-go nieunkean horixe! \*Demonintrua!».

Esan ebana esan baeban ba ze, ez jako agertuten bere magal petralaren ondoan endemoniñozko kaballero bat eta esan:

—Zer gura deustana ba neskato?

—Zer gurako joat ba, zubia!

—Ba, zubia gura badona hik heuk heure arima emon behar deustana zubia egin akabatuz batera!

—Ba, bai, eutsi arima hau \*nor zaran beist!

Esan egin ebazan horreek berbok baina akordatzakoan agertuten jakoz infernuko prakagorri guztiok eta berbaturainoko guztiak etorri jakozan neskato horri. Kontuak atara ha zer izango zan, deabru koxoren batek, koxoa izateagaitik, beste guztien erramientak eta nik ez dakit zenbat kintaleko harria eroaten eban be.

Ha bai zala ikustea, danak eragoioen beharren, batzuk harritan, beste batzuk harri-landuten eta deabru kaballeroa zaldi gainetik agintan. Esaten dabe, harriak Gorbeiatik, Dimatxetatik (Dimako haitzetatik) eta hortik zeretik, Oiz-tik ekarten ebezala.

Neskatoa, arteak be ezin eban hartu eta belea baltzago ez dala egingo pentsatuta, jaurtin jarro hori, itzi bertan behera prakagorriok eta karran joan ei zan hurren eukan komentuko abadeagana eta esan:

—Jauna, jauna! Zabaldu beist atea, arin, berorrek baleki nondik eta zertan natorkion! Ai, amatxua! Hau da bihozturako mina! Hau bai dala edan bako hordia! \*Durdiduago sekula inor ez da egon izango! Ai enetxua! Zer behar deustan baino ez dok horrek deabru mantzin horrek!

Eta abadeak esan ei eutsan gora-goratan:

—Baina, baina, zer jaungoiko egin deustazu ba alabatxo errukarria fetura horretan

etorteko? Aitearen eta semearen...! Zek emon deutsun baino ez da hori afruntu hori!

—Ba, jauna, hauxe eta hauxe, eta honantxek eta honantxek deabruari arima ez deusat ba ofrezitu! eta, berorregana nator zein arima galdu. \*Beitsoz nire pekatuok eta parkatu beistaz!

—Hori egingo zenduan ba alabatxoa, zuk egin dozu egitekoa, ez dakizu ba nire bedeinkazinoagaz be nahikoa ez dozuna!

—Zer egin behar dot ba orduan nire neure arimea betirako galdu ez egiteko?

—Ba, hara, martian oilarragaz ibilitako oiloaren arrauntzatik marti-oilar batek jaio behar dau eta zubi hori egin akabatu baino lehenago kukurruku gedarrez hasten ez bada zure arimarenak egin dau! Pedro boteroren galdaran zagoz esanekoa egiten ez badeustazu.

Abadeak, komentuko kanpandorreko kanpaiots guztiak gitxi ebazan, eta Kastrejana inguruko guztiak batu ei ziran oilar hori topetako. \*Denodu guztiagaz eragoioen era-

gon be \*adinon egoteko asti barik, baina, \*egina langoa emoten eutsieen emon be harek beharlekuak.

Gaua aurrera joaken baina marti-oilar hori ezin topatu eta bien bitartean deabruak baebilzan, ibili be, zubiginen eta azken antzean ibili be, \*tenolik ez jaken falta ez!

Deabru kaballeroak, adikuna bat zubiari eta beste bat inguruko oilategiari egiten ei eutsen seguru, eta, luze eritzita egoana lez, inizitua bera baino zoliago joan ei zan bera be beren beregi harritan Oiz mendira,— horra, lehengo egunean erakusten eroan zindudazan urregorri-mendira—, eta horra seguru, nik hori gure zaharrei entzunda daukotsiet, badakizu.

Abadeari be orduak luze egiten jakozan \*arrikanpaietarazkero deabruak botererik ez eukela baekian eta, ze gauza jakina da horreek egunez botererik ez daukiena. Beste guztiei ostera arinegi joaken gaua marti-oilar hori topatu guran topatu guraz.

Ibili eta ibili, halangoren baten ez dabe topetan marti-oilar hori eta galtzu zuziak sutan



iminita kukurruku eginazo! Neskatoak, dea-bruak katigatutako arima barrien barriz logratu ei eban eta, aditu gauzak zelan diran e, dea-bruak berak ei ekarren zubirako azkenengo harria, baina marti-oilar horren kukurrukua entzukuran, hor, Oiz ondoko bazterren baten bota ei eban harri endemoniño hori eta erneguaeren erneguaz emon eutsan eskukazuaz bere arrabeteko atzamar marka eta guzti itzi ei eban seguru. Hak emongo eutsan emoteko zapladea!

Horregaitik esaten dabe Kastrejanako zubia harri baten faltan lotu jakula. Aikorzan ba Kastrejanako zubi horren gora-beherok! Egia ala guzurra? Batek bajakik!

Izar gaztea, ikaraturik egoan Lekobideren jakituriatz. Berak baino ez ekian zenbat gauza ikasi ebazan haregandik. Lekobide ere pozak hartu ezinik egoan Izarren arreta bizia ikustean. A zelako pareta, bata eta bestea!

Behin Kolutza mendiko hori bete ebenean, Bilbora bueltatu ziran ibarririk ibar errekatok ur garbiaren murmurioa lagun ebelarik. Hu-

rrengo egunean, Bilbo itzi eben eta lehengo bideetatik barik, beste batzuetatik joatea pentsatu eban Lekobidek. Jata mendi alderantz jo eben itsaz ertzik itsaz ertz, gero handik aurrera barrero Altamirara heltzeko eta holan Bizkaia guztiari oboen-oboengo buelta emon.

Jatabe mendi barrenera heldu ziranean, han, hegillamu bateko mandabide ertzean kareginen aurkitu ebezan Bakioko etxaguntzakoak. Lekobidek jakin baekian karegintzaren barri baina Izarri azaltzeko bestean ez, horregaitik karobian ebilen beharginari argitasuna eskatu eutsan eta harek emon ere bai Izarrek ondoegi ulertu ez arren. Izan ere gauzak eginean ikasten dira, jakina.

Izar, luzaroago ere geratuko zan kareginagaz baina Lekobidek sorbaldatik eskua bota eta irribarre bat eginaz esan eutsan:

—Izar, ondo dago zure borondatea erakustea eta badakit kapaz ere bazarana baina hau beharleku hau ez da zuretzako, zu, beste zeregin handiago batzuetarako behar zaitut.

Goazen aurrera, ekin deiogun geure bideari gauera orduko Altamira hartzeko.

Halantxe egin eben egin ere. Bakio itzi eta Bermeoko bideari ekin eutsien biak bieta-  
ra berbalotsean. Bakioko aldats gora igon eta  
aurreratxoagoan, ezkerretara, Gaztelugatxeri  
erreparatu eutsien eta Lekobidek birritan pen-  
tsatu barik, badinotso Izarri:

—Itzi daiguzan zaldiok eta goazen oinez  
Gaztelugatxera!

—Bai, gura badozu, nik neuk zer gura-  
go leku barriak ikustea eta ezagutzea baino!  
—erantzun eutsan esku biak igurtziz, Izarrek.

Bizkaian zehar hainbat leku arriskutsu  
ikusi eben baina Gaztelugatxeko igoerea, labu-  
rra baina gatxenetarikoa iruditu jakon Izarri.  
Oinez ezin ebena katuka igon eben baina igon.

Behin Gaztelugatxeko kasketeraz gero,  
itsasora begira jarri jakuzan eta berbaz-berbaz  
ebilzan horizonte barrurantz adikunak botata.  
Halako baten Izar zutundu egin zan eta gora-  
goratan badinotso irribarreka egoan Leko-  
bideri:

—Lekobide, baleak dakusadaz han aurrean, Izaroren atze partean, baina zergaitik ez doa inor eurak harrapatzen?

—Hara, Izar, bale arra eta emea dozuz horreek eta emea susara da, horregaitik ez doa inor eurak harrapatzen, hori egingo bagendu laster litzatekez baleok ezebeztu, egin ere, ameak ez dira harrapatu behar umegintza edo eta ume hazten dagozanean.

Behin baten, kasu berbera gertatu ei zan eta bermeotar batzuk joan ere bai bale arra harrapatzeko asmoz behin emea gobernatu ezkerro.

—Eta zer gertatu zan gero? —itaundu eutsan Izarrek dana jakin guran.

—Ba, aditu, historia hau oso luzea jatzu, sinistezina iruditu arren, jazorikoa dala esaten dabe eta izan ere izan daiteke. Kontatu egingo deutsut:

“Ba, bermeotarrak joan egin ziran bale arraren atzean eta egunak eta egunak emon ebezan baleari atzerik hara jarraitzen. Non egozan ere ez ekien eta halako gau ekaitzdun

baten, balea bistatik galdu eta itsaso txarrak haitz bitarte batzuetara bota eutsieen barkua. Han emon eben gaua, hotzakilik eta salbea errezetan.

Hurrengo goizean, egunsentiaz batera itzi eben barkua eta lehorreratu ziran non egozan jakiteko baino zer jan eta edan aurkitzeko. Lehorrean barrura joiazan eta joanean-joanean, ibai bat aurkitu eben eta berari jarraitu ertzeko bidezidorretik. Egurdarte erdi inguruan, ibaia urkultzen zan lekuan, zer? eta kanoa bat ikusi eben gizon baltzez beterik barruan hainbat janari ekarriela. Ha ikustean ikaratu egin ziran bermeotarrak baina goseak eraginda edo, bermeotar indartsuenak esan ei eban:

—Kanoa hori gure parera heltzen danean, salto egin eta janari apur bat kendu behar deustegu, eskatuta ez deuskue ulertu ere egingo eta!

Bermeotarra isildu zanean, nondik? eta kanoatik, zer? eta hauxe ez zan entzun ba, eta euskeraz gainera:

—Kontuz, mutilak! Nasai, ez artegatu eta gogor plantatu, gu geu ere pertsonak gozak eta!

Bermeotarrok, hori entzun ebenean, harrituta gelditu ziran eta belaunikaturik makurtu eta guztiak egin ebezan parkamena eskatuz.

Baltzen kanoa ibai ertzeratu eta hango baltz euskalduna lehorreratu zanean esku bata sorbaldatik eta besteaz bostekoa botaten hasi jaken lagun bidean. Bermeotarren buruak, ha harrera ha ikustean, jana eskatzeko akordu barik itaundu eutsan:

—Zuk zelan dakizu ba gure berbaikunea?

—Bueno, goseakilik zagozienez, jan eizue gura dana eta janez-janez kontatuko deusuet nire historia:

«Urteak dira, izan ere, ni bale arrantzara joan nintzana. Itsasoan oso barrua ginan, nik neuk ere ez dakit non, eta zuoi lez, ekaitz handi batek jo eta barkua haustu egin jakun. Uger nenbilen itsaso gogorrean eta barku apurtuaren ohol bati besarkatuta emon neban gau osoa erdi bizirik. Hurrengo goizean, itsa-

soa baretuta egoan eta ni beste barku baten etzunda gizon zurien artean. Itzartu nintzan eta ez neban ezer ulertzen. Berba egiten eusten baina ez egoan ha berbaikunea ulertzerik, eurek ere ez nire neurea. Ondo esan eusten eta eurekaz eroan ninduen baletan nik neuk ere ez dakit nondik.

Egunak joan egunak etorri, euretariko bat egin ninduen eta eurak nirea ez baina nik euren berbaikunea, euskerea, ikasi eta guztia egin neban, eta ez jat ahaztu oraindino. Handik luzaro batera, baltzen barku bat pasatzen ikusi ebenean, keinu batzuk eginez, hurreratu egin ziran eta neure afrikar berbak bitarteko aldatu nintzan barkuz eta etxera etorri. Horregaitik egin deusuet harrera ona, neuri euskaldunak egindakoa lakoa. Barkua haitz bitartean dozuela esan deustazue, ba, goazen eta guztion artean konpondu egingo dogu Bermeora bueltatu zaitezten.

Halantxe egin ei eben. Denborak eta denborak pasatuta, galdutzat emonda euki

arren, ailegatu egin ziran Bermeoko portura, baltz euskaldunaren barri ekarrela.»

Izarrek ezin eban sinistu ere egin baina ukatu ere ez, bere historia ere ez zalako edo-nork sinistekoa.

Iluntze ordurako, bajatu ziran kontuz-kontuz Gaztelugatxetik, hartu zaldiok eta tipi-tapa, Altamiran plantatu ziran. Baeukan bai zer kontatu Izarrek bere amari!

Izar geroago eta pozago bizi zan Lekobiderenean. Bizkaia ezagutu ahala bizkaitarrago sentitzen eban bere burua, etxeko gora-beheretatik hasi eta gizarte mailararteko guztietan.

Poz-pozik eta bake-bakean bizi zirala, gau iluntze baten adarrotsa barruntatu eben Lekobidek eta Izarrek urrunetik. Lekobiderentzat ez zan lehenengo aldia, bai ostera Izarrentzat eta horretara esan eutsan ba ze:

—Zer jatzu ba hori gaulendiko adarrots hori?

—Nik neuk ere ez dakit —erantzun eutsan Lekobidek—, baina gauza onik ez! Orain



gautu egin dau eta ezin dogu inora jo baina bihar goizean, tertzioz joan beharko dogu Gernikako Arbolapera zer dan edo ez dan jakiten.

Gau haretan ez eben lorik ere egin Lekobiderenean. Hurrengo goizean, eguzkiak urtetako itxaron ere egin barik, hartu zaldiok arinago egiteko eta santiamen baten plantatu jakuzan Gernikan. Ordurako, han euken itxaroten Zeberioko etxagunaren morroi bizkorrena eta Lekobidek beste etxagunak ailegatu arte itxaron ere egin barik badinotso zeberioztarrari:

—Zer da ba gertatzen dana adarrots hori atarateko?

—Ba, hara Lekobide, Zeberio eta Orozko bitartean dagoan Untzeta mendian gengozan, beti lez sorots egiten eta atzo egurdartean ikaragarritzko ejerzitu bat sartu da Bilborantz. Gure trabuko-harri biribilak ez dira izan nahikoa geratzeko eta aurrera egin dabe. Horregaitik, suak egiteari itxaron beharrean, adarrotsa atara dogu lehenbailehen zeozer egiteko!

Lekobide aitearenka hasi zan. Izar zirkinik ere egin barik egoan hango atzera-aurrera ikusi arte. Apurka-apurka, beste Bizkaiko etxagunak ere hasi ziran Gernikara hurreratzten eta gehientsuenok alkartu ziranean hasi jaken Lekobide esaten:

—Adiskideok, hauxe eta hauxe barri hau jatorku Zeberiotik eta ezertan hasi baino lehen, areriook nortzuk diran jakin behar dogu. Horretarako, goazen erdiok Zeberiotik behera Bilborantz eta beste erdiok itsas alde-rik itsas alde Bermeo eta Bakiotik, bitzuok bat egin arte eta erdian harrapatu erbestetarrok.

Esan eta egin. Bizkaia osoa mugitu zan. Adar edo eta bozina-mendietakoak adi-adi egozan eta zaldun bizkorrak martxan Lekobidek esaneko lekuetatik.

Lekobidek eta bere taldeak arin egin eben Bakiorainokoa eta handik Bilboranzko bidea hartu ebenean, ez dabe ba topez tope egiten arerio-ejerzituagaz!

Ikaratu ere egin ziran eta ez gitxi gure Lekobide eta gainetiko guztiak. Bildursartua

eginda egozan, zelan ez ba hainbeste areriuoren aurrean! Geldi-geldi egozan alderdi bietakoak eta halango baten Bilbo aldetik beste bizkaitar talde nagusia agertu zan. Lekobidek arnasea hartu eban. Erbesteko areriuari ere errespetoa sartu jakon eta bere zaldi gainetik bajatu barik erromantze-berbaikunan esan eban:

—Goietako lurraldeak neureak diran lez, Bizkaia ere neuretzat gura dot eta horretaraxe nator!

—Baina, nor zaitugu? —itaundu eutsan Lekobidek—, ekian erromantze apurra bi-tarteko.

—Ni, Ordoño infantea, Leongo Alfonso nagusiaren semea!

—Ba, gu Bizkaiko etxagunak gara eta Malato arbolatik honantzakoa geurea dogu eta geurea defenditu egingo dogu eta bildur barik gainera.

—Gerra gura badozue, egin egingo dogu —inoan harrokeriaz Ordoñok—, baina ni erre-gearen seme nozue eta nire kontra egiteko zue-tariko baten batek errege-odolekoak izan behar

dau, bestela ez dago zereginik, Bizkaia neurea da. Ondo pentsatu eta baldintza hori beteten badozue, etorri hiru egun barru Bilbo eta Orduña bitartean dagoan Padura zelaikadara eta hantxe egingo dogu norgehiagoka hori. Hantxe neuruko doguz indarrok, nork balio dauan erakutsiz!



Berbok esanda, Ordoño infanteak alde egin eban handik bere ejerzituagaz Bilboranzko bidea hartuz eta bere erromantze berbaikunnan “vos bildur, vos bildur, vos bildur” esanaz erronkaka. Lepoa emokeran harro-plantak egiten ebazan, beharbada, baekialako bizkaitarren artean ez egoala errege-odolekorik.

Lekobideri eta gainetikoei a zer nolako buruhaustea etorri jaken Ordoño horren esanetarik!

Lekobide, norbereari eutsi gurean, Tabirako Santxo Estigiz etxagunari hurreratu jakon eta esan:

—Bizkaia ezin dogu arerioen esku itzi eta zelan edo halan bideratu behar dogu Padurako norgehiagoka hori. Hiru eguneko epea daukagu, zergaitik ez gara bihar Bizkaia guzti-ko etxagunak alkartzen Gernikan eta aurka egin Ordoño harro horri?

—Konforme naukazu eta egin daigun zeuk dinozuna! —erantzun eutsan Santxo Estigiz Tabirakoak.

Alkarturiko guztiak joan ziran euren etxeetara eta gau haretan adar edo eta bozina-mendietan ezeze beste askotan ere entzuten ziran dei-adarrotsak, sugarrak, zantzoak eta irrintziak.

Lekobide, han egoan Altamirako etxaguntzako sutondoan bere burua belaun bien

erdian sartuta, Izar bere ondoan \*alimuak emoten, Maria eta Lekobidesea ere arduraz beterik. Ez zan gitxiagorako!

Laurak egozan isilik. Izarrek ulertzen eban Lekobideren buruhaustea, errege-odolekoarena hain zuzen. Eta gau erdiko izarrak argituta edo esan eutsan Lekobideri:

—Aditu, Lekobide, 22 urte dodaz. Aita Santimamiñetarra zala esan deustazue beti, erregeak baino garrantzitsuagoa, bizkaitarrontzat behintzat, eta hori gitxi balitz, Maria neure amagandik errege odolekoa nozu. Beraz, neuk beteten dot Ordoño arerio horren baldintza!

Lekobide zutundu egin zan, hobeto esanda, gora-goratan egin eban salto eta besarkadaka hartu eban Izar esanez:

—Eskerrak zeru eta lurrari, Izar izango da Bizkaiko errege-gidari!

Maria Eskoziako erregearen alabeak argi baino argiago ikusi eban Izar bere semearen eginbehar eta betebeharra eta Lekobideren besarkada ostean esan eutsan:

—Izar, neure seme maitea, gizon egin zara eta 22garren urtean zeure aita Peruk neuri emondako esbastika hau zeuri emoten deutsut beti aldean eroan daizun!

Lekobidek, negar eta guztiak egin eban, pozagaz, jakina, eta hurrengo egunean, inoiz baino goizago plantatu ziran Izar eta biak Gernikako Arbolapean.

Bizkaia guztiko etxagunok alkartu ziran Gernikan baina bekokiastun egozan danak Lekobide izan ezik. Lekobidek denporarik galdu barik, hartu sorbaldatik Izar gaztea eta holan egin eutsen berba bihozberatuta egozan beste etxagun guztiei:

—Bizkaiko etxagunok, zorionean gagoz. Ordoño arerioak errege odoleko bat eskatu euskun eta hementxe daukagu: Izar, neure semeordea. Bere aitaren Santimamiñe tartasuna onartzen ez badeusku, ama parteko errege-odola ukaezina da eta berau izendatuko dogu gure gidari Ordoñoren aurka, zer dinozue?

—Bai, bai, bai,... —erantzun eben danak aho batez—. Gora gure Izar gidaria!

Indarbarrituta eta denborarik galdu barik, Padura zelaikadako norgehiagokarako plantatu ziran bizkaitar guztiak. Harrizko zein burdinazko armaz bete ebezan mando-otzara eta zalpurdi guztiak eta Izar, Lekobide eta Tabirako Santxo Estigiz hirukotea aurretik zala, berehala plantatu ziran Padurako hegillamuan.

Ordurako Paduran egoan Ordoño. Ez eban itxaron ere egiten bizkaitarrak hurreratzten \*atomatuko ziranik, baina han egozan, borrokarako prest.

Ezertan hasi baino lehen, Ordoñok kontuak eskatu eutsazan Lekobideri aurretik esandako baldintzaz kanpo ete datorren eta holan inotson bere erromantze berbaikunan:

—Nor dozue ba errege odoleko hori? Ja, ja, ja! Sekula ere ez dogu entzun bizkaitarrok erregerik daukazuenik. Zer, mirariren bat gertatu da ala?



Lekobidek gudarien artean eroan eban abade baten ahotik Izar errege-odolekoaren barri emon eutsan Ordoño harroputzari. Ordoñori buruko uleak ere arteztu egin jakozan baina halan eta guztiz ere, danabeharrekoa zanez, gerrea eskatu eban.

Hasi ziran hasi ere, gogor alderdi bietatik. Hainbat bateko eta besteko jausi zen odola dariola Padurako zelaikada horretan. Halako baten Ordoñok erdi ustekabeen harrapatu eban Santxo Estigiz Tabirakoa, alderik alde sartu bere ezpata zorrotza eta hil egin eban Lekobidek bizirik irauteko ahalegin guztiak egin arren.

Izar gazte eta indartsuak fetxoria hori ikusi ebanean, bota zantzo estentoreo bat eta artez-arteaz joan zan Ordoñogana. Honek bildurtu beharrean desafio keinuak egin eutsazan Izarri. Orduan Izarrek Tartalok berak baino indar gehiago ataraz bere besoetatik, jo lantzaz lehenengo eta ezpataz gero, eta ia-ia erdi-bitu egin eban Ordoñoren gorputza eta odol-hutsituta gorpu bihurtu. Ordoñoren heriotzea

ikusirik, alde egin behar izan eben bizirik geratu ziran Ordoñoren kideak. Dana dala, eta ohitureari jarraituz, Malato arbolaraz geroraino ez ziran geratu bizkaitarrak.

Behin Malato arbolatik harantz uxatu ezkerro, barrero bueltatu ziran Padurara, lehenengo eta behin hildakoei lurra emoteko. Ordoño harrizko hilobian sartu eben, orduraz gero, jausitako odol ugariagaitik edo, Padura barik Arrigorriaga deitu eutsien herriko eleizportalean.

Padura edo harrezkero Arrigorriagakoa amaitu eta gero, Lekobidek gudariak euren etxeetara bialdu ebazan baina etxagunei esan eutsen:

—Gaurkoa ikusi dozue, irabazi dogu baina gutariko asko galdu ere bai. Beraz, hurrengorako prest egon behar dogu eta horretarako gure orain arteko defentsa-antolamendua sendotu. Horregaitik, orain goazen indarbarritzen baina hurrengo \*idergibetean Gernikan alkartuko gara.

Halantxe egin eben. Alkartu ziran etxagun guztiok Gernikako arbolapean eta Leko-bide hasi jaken esaten:

—Ez dozue behar nik esaterik, baina ni neu zaharra nozue Bizkaiko gidari izateko. Horregaitik, Padurakoa ikusita gero nik neuk behintzat badaukat ordezeko bat, Izar, zuok ondo baderitxazue.

—Bai! —erantzun eben aho batez etxagun guztiak.

—Izar onartu dozuen ezkerro, nobedade bat esan behar deusuet, zein? eta hauxe: gaur lako izendapenik ez dogu sekula egin eta bateoko izena Izar bada ere, aurrerantzean gure Iaun Zuria izango joko izena. Zergaitik? Ba, ez azal-zuria dalako bakarrik, ezpabere, bere aitagandiko esbastikan “I.Z.” agertzen dalako ere bai. Hizki bi horreek izan genduzan kontutan Izar bateo-izena iminterakoan eta orain ere, bizkaitarron Jaurreriko buru izendatu dogunean, hizki biok eroango dauz Santimiñetarren tradizioak jarraipena izan daian!

—Gora gure Iaun Zuria, zaindu Bizkaiko Jaurerria! —oihukatzen eben danak.

Aro barri bat sortu zan Bizkaian. Iaun Zuria herririk herri hasi zan dana antolatzen eta Malato arbolatik itsasorartekoa zintzo-zintzo jagoten. Bizilekua ere aldatu eban. Bilbo aldean egin eban Jauregia Bizkaiko etxagunak errezago ibilteko euren gestio edo kudeaketarako joan-etorrietan. Gernikakoak bardin jarraitzen eban in sekula sekulorun.

Iaun Zuria gazteari eginen handia emon eutsan Bizkaiko Jaurerria antolatzeak baina lortu eban askok uste baino lehen.

Urteak joan urteak etorri, adinak parkatzen ez dauanez, Lekobide eta Lekobidesea hil egin jakozan beste etxagun ezagun askoren artean. Ama Maria ere ustekabeen eroan eutsan mundu honetatik koliko miserere batek, baina halan eta guztiz ere, berrindartu eta aurrera egin eban bizkaitarren Iaun Zuriak.

Bizkaia nasai bizi zan Iaun Zuriaren agindupean eta haziz eta heziz joian nekaza-

ritza, burdingintza, arrantza eta beste arlo guztietan. Egoera horretan zenbat gura eta harexen beste asti eukan Iaun Zuriak harona ibilteko. Horregaitik mendietara urtetan hasi zan bariro ere gozatzeko Lekobidek aldi baten erakutsitako lekuak.

Egun baten, hartu bere zaldia eta Gorbaiako bidari eragoion Iaun Zuriak. Bidean, Atxuriko arrantzaleak, Boluetako olagizonak eta beste hainbat herrikide ikusi ebazan danen aurrean esker onekoa izanez.

Zeberiora ere ailegatu zan eta Olabarrietako eleizatik Gezala auzunerako bideko harizduian basa-behi elia aurkitu eban abaroan. Geratu egin zan eta eliaren zain egoan mandazainari esan eutsan:

—Norako ditean hago ba?

—Ba, Aibelabe ondorakoan. Lehen Gorbai ondoko Arraba landara eroaten genduan ganadu elia baina orain ez dogu Zeberiorena.

—Zer dala eta ez ba?

—Ba, aditu: Zeanurik demandea sartu euskun landa hori dala eta, eta urteko zekor-borrokan jokatu ere bai baina, geuk irabazi arren enbitea, urruneko egur iharra lez, azkenean bertan behera itzi genduan, munduan danok bizi behar dogu eta.

Iaun Zuriak, entzunak entzunda, aurrera jo euskun. Gezalako iturri gazian aurpegia garbitu ere egin eban kutiserako ona zala eta.

Joanean-joanean, Arrabako landara ere heldu zan eta berehala konturatu zan Zeberiko mandazainak kontatutakoaren zergaitiaz. Artzain asko ere asko ikusi ebazan landa horretan.

Aurreratxoago, Egiriñao deritxon pagalandako gerizpetan hartu eban atsedena. Pagape baten eli-pastore bat aurkitu eban eta:

—Eup! Zer egingo ete deusku ba egun honek?

—Ez dakitsut ba! —erantzun eutsan pastoreak—. Hodei-lainoak agiri dira eta ez dakit ba parte txarrekoak ez ete jakuzan gainetuko laster, aldi bateko argi-deabrua lez!

—Argi-deabrua esan deustazu? Zer jatzu ba hori?

—Jarri hemen eta aditu: Argi dago gaztea zarana. Hodeiak baltzitu eta inizituak joten dauanean prakagorriak ikusten dira laino artean eta inoiz argi-deabruak ere bai. Kontuz ibili behar da argiokaz zein bertatik deabruak urten. Ikusi ez dodaz egin baina entzun bai honeek kontuok, eta entzuteak bakarrik ere bildursarturainokoa emoten deust!

Iaun Zuria ikaratuta egoan ikusi eta entzuten eban guztiagaz eta pastore haregaz berbaldia egin ostean, Superlegorreko kobarako bidea hartu eban Itxinako hazdua zeharkatuz.

Lekobidegandik ekian Mari Anbotokoak zazpi urte egiten ebazala Superlegorren baina inoiz ez jakon gogora etorri holako kontuetan sinisterik. Superlegor koba barruraino sartu zan baina han ez eban Mari Anbotokorik ikusi. Koba ederra zan, sakona, azken partean erreka bat eta guzti baina ez eban sai batzuk baino besterik ikusi sartu-urtenean. Handik gerora,

Itxinako hazduiaren barruan, Atxularko begia begiztatu ebanean, zer? eta ene!, neska eder bat ez eban aurkitu ba! Hurreratu zan eta begiak ere lausotu egin jakozan Iaun Zuriari ha neska hain ederra ikustean. Begietako argi-lauso hori kendu jakonean, harriduraz beterik, holan berba egin eutsan Iaun Zuriak:

—Nor zaitudan baino ez da!

—Ni, Mari Anbotokoa nozu eta zu?

—Ni Iaun Zuria, Bizkaiko Jaurreriko lehen nagusia.

—Orduan biok gara errango edo linaje handikoak, ni jainkosa eta zu Bizkaiko nagusi!

—Ba bikote lagunabarra egiten dogu. Ezkonduta zagoz Mari?

—Ez, orain arte ez dodalako izan horretarako neure mailako lagunabarrik.

—Eta biok ezkontzen bagara, zer?

—Bai gura badozu! Baina arazo bat daukagu. Ni kristau aurrekoa nozu eta zu ostera kristaua zaitut, hortxe daukagu muga! Ikusten



dodanez, zu gizon eskolatua zara baina badakizu herriak zelan jakin eban Jesukristoren barri?

—Ba, nik dakidanez, abadeengandik. Nik honantxe eta honantxe, Altamiran ikasi eta jakin neban barri pozgarri hori ume-umetarik.

—Bai, halan izango da —erantzun eutsan Mari Anbotokoak—, baina abadeak hona etorri aurretik, beste era honetara ezagutzen zan kristau aurea eta ostea, aditu eidazu:

“Behinola, basajaunak edo jentilak Egubarri ospatzeko alkartu ei ziran Aralar mendiko landa zelai baten. Neguaren hasierahasierea zan, udearen hasierarik hona laburtzen-laburtzen etorren egun-argia luzatzen hasteko eguna, Egubarri hain zuzen. Danak egozan pozik. Basajaun gazteak saltoka eta harri-bolan ziharduen, helduagoak indar gitxiko eguzkipean dantzan eta zaharrenak jesarritan ingurumarietan danera adi.

Basajaunik zaharrena ez egoan besteez, atzeragoan baino. Zaharraren zaharrez, begiak ere itxita eukazan, gorputza sor, burua

arin, eskuak indarga eta hankak loka. Ez zan gauza jesarrita egoteko ere eta horrexegaitik euken haitz bati deutsalara, erdi etzunda basajaun zahar gizaixoa.



Egubarri osoa emon eben ospakizunetan eta ilunabarra noiz helduko egoala, argi berezi bat ikusi eben ekialdetik. Pentsakor geratu ziran danak ere eta inor ez zan ausartzen ahorik askatzen ha argia zer izan eitekean azaltzeko, inoiz ikusi bakoa zalako. Iluntzea aurrera joan ahala, argi berezi hori geroago eta hurrago euken eta basajaun horreetako ausartienak hasi ziran esaten batak besteari:

—Hi, eguzkia jatork barriro! —batek.

—Hago isilik! —beste batek—, eguzkia sartu dok sartzamendian; hori ilargi bizia izango joaguk.

—Zagoze biok isilik! —hirugarren batek—, ilargia ilberrian jagok, beraz, hori argi hori izar handiren bat izango dalakotan niagok.

Eztabaidok entzun orduan, basajaun guztien buruzagiak hitza hartu eta era honetara hasi jaken berbetan:

—Nik neuk ere ez jakiat hori argi hori zer dan, ez joat eta, inoiz ikusi holangorik, baina beharbada, han baztertuta jaukagun basajaun zaharrenak zeozer jakingo jok!

Nagusiaren berbok entzun eta gero, joan egin ziran basajaun zahar-zahar harengana eta esan:

—Hi, argi berezi eta handi bat ikusten joaguk ekialdetik eta hor gagozak zer dan ulertu ezinik. Hik heuk badakik zer dan?

—Zelan arraio jakingo joat ba ezin joadaz begiak zabaldu ere egin eta!

Zahar horren berbak entzun orduan, hartu besartean eta beste basajaun guztien erdira eroan eben. Behin erdiraz gero, argiari adi jarri eben eta buruzagiak begiak zabaldu eutsazan argi berezi hori ikusi eian. Adi-adi geratu zan basajaun zaharra eta halango baten bere beso indarga biak gora-goraka jasoaz badino:

—Kixmi jaio dok! Kixmi jaio dok!  
Kixmi jaio dok! Gureak egin jok! Gureak egin jok!  
Gureak egin jok! Bota naizue Aralar-eko haitzetik behera! Bota, bota, bota!

Beste basajaun guztiak harrituta gelditu ziran eta urtenbiderik ez eukela ikustean, basajaun zahar horregaz batera, bata bestearen atzean, danak galdu ziran betiko, danak bat izan ezik: Olentzaro.

Olentzaro, basajauna izanik, herritarren laguna zan. Beste basajaunak hasarre ibiltzen ziran sarritan herritarrekaz. Herritarrak bae-kien basajaunak eurek baino aurreratuago ebilzala labrantza eta burdingintzan baina baten baino gehiagotan, zuhurtasunaren bidez, lortu egiten ebezan aurrerapideok basajaunen-

gandik. Esate baterako, garia, artoa, errota-harriaren haltzezko ardatza, burdinea soldatzearen teknikea edo gaztaina orriaren itxuran egindako zerrea. Horregaitik Olentzaro pentsakor geratu zan beste basajaun guztiak galtzen ikustean eta bere buruari esaten eutsan:

—Ni neu ez, ni neu ez noiak beste basajaun guztiak lez amildegian galtzen, nik neuk maite joadaz herritarrak eta gaur jakin dogun barria jakin behar jabek, gureak egin arren, eurenak aurrera egiteko kristautasunaren aro barrian. Horretarako, herrira joan eta barri ona zabaltzen hasiko nok baserririk baserri.

Esan eta egin. Olentzaro mendian behera hasi zan herrirako bidean. Atzerik hara argi bereziak jarraitzen eutsan eta lehenengo baserrietara heldu zanean zantzoka eta berba indartsuz hasi zan esaten:

—Herritarrok, Kixmi jaio jatzue! Begira horri goiko argi berezi horri, ekialdetik datorren argi pozgarri horri! Gureak egin dau baina orain zeuona dozue aro barri hau. Poztu zaiteze, poztu!

Baserritarrak asko poztu ziran Olentzaroren berbak entzutean eta esaten ebana egia zala ikustean badino batek:

—Hi, Olentzaro, zergaitik ez goazak hi aurretik eta gu guztiok atzetik garala herriko baserri guztietara eta gero herriaren erdiko harizpera!

—Ba, joatea baino ez jagok! —erantzun eutsan Olentzarok.

Han joiazan baserririk baserri barri ona zabaltzen eta bat esanda bera ere ez zan etxean geratzen, danak Olentzaroren atzean. Herri guztiko atek jo ebezanean eta danak harizpean alkartu, Olentzaro hasi jaken esaten:

—Banan-banan ere esan deusuet baina Kixmi jaio jatzue! Beste basajaun guztiak kontraktzat hartu dabe barri on hau eta “Kixmi” izena ere horrexegaitik jarri deutso gure basajaun zaharrenak. Esan deusuet baina barriz dinotsuet: beste basajaun guztiak amildegian galdu dira eurenak egin dauala eta. Ni ostera, hemen nozue lagun lez, lehengo aroko azken

basajauna izan arren. Etorkizunean zintzo jarraitu gaur jaio barri dozuen salbatzaileari!

Herria asko poztu zan eta jai handi bat antolatu eben Olentzaroren inguruan. Zenbat gura eta harexen beste jaki eta edakiz batera, tabakorritz betetako pipea ere emon eutsien Olentzarori. Olentzarok, jan-jan eta edan-edanak eginda, honeexek berbok esan eutsazan pozez beterik egoan herriari:

—Banoatzue, lagun izan nozue orain arte eta orain joan noa hortik zehar Mari Anbotokoagaz nonbaiten estaltzera baina ohi-turak ohitura izaten diranez, urtero-urteroko Egubarrietan hemendik izango nozue opariz beterik, zahar, heldu eta batez ere ume guztien pozerako. Agur eta datorren Egubarrietararte!

Iaun Zuriak adi-adi entzun eutsan ipuin hau Mari Anbotokoari eta benetan maitemindu eta guztiraino egin jakon bere edertasuna ikusi eta berba gozook entzutean. Burua ezinak joten eutsan eta bihotza ahalak. Iaun Zuriak bere barruko borroka horretan ia-ia bere

senetik urtenda, zera esan eutsan Mari Anbotokoari:

—Gauza bat egingo dogu, zatoz neugaz Bilboko jauregira. Ezkondu gaitez an sekretuan eta bakoitzak bere ohiturak jarraituz biziko dogu geroa.

—Holan bada konforme, eroan naizu zeugaz!

Iaun Zuriak, hartu Mari Anbotokoa bere zaldi gainean eta tipi-tapa Bilboko jauregira eroan eban. Bizkaia osoan zabaldu zan Iaun Zuriaren ezkontzaren barri, baina inori ez jakon txokatu horretarako sasoi an edo tertzio an aspalditik sartuta egoan eta, ia-ia mutilzaharturik, uleak ere urdinduta. Pozik bizi ziran bakoitzak bere ohiturei jarraituz. Urteagarrenerako seme bat ere izan eban, seme polit bat. Iaun Zuriak, Mari Anbotoko bere andrearen isilean, bateatu egin eban semea eta kristautu badaezpada ere.

Egun batek bestea dakarren neurrian, Gabonak ere heldu jakezan. Gabonkariak es-



kuratu eta afaria ere prestatu eben batak besteari lagunduz.

Gabon afaria egiteko tertzioa heldu zanean, Iaun Zuriak, Gabon-enborra isiotu eban surten, gero labesurik harako ogi borobila eskuetan hartu eta txakur amorratuarentzako lehen kuzkurra ebagi baino lehen, ohitureari jarraituz, kurutze bat egin eutsan aiztoaz ogiari eta:

—Ene! Zer egin deustazu? Baldintza apurtu dozu eta ni banoa hemendik neure semea hartuta! —esan eutsan Mari Anbotokoak oso hasarre.

—Nire semerik ez! —erantzun eutsan Iaun Zuriak—. Nire semea bateoraz gero kristaua da eta neu ere bai, aditu ezpabere nire esbastikearen barrualdeko kurutzeari!

Berbok entzun ebazanean, Mari Anbotokoak hanka egin behar izan eban Bilboko Iaun Zuriaren jauregitik, baina ez edozein modutara, garretan joan zalazkoa kontaktzen eben bizkaitar guztiak eta harrezkero, garretan eragoiola, mendirik mendi eta kobarik koba.

Noiz arte? Ba, anega bat garik garautan daukan beste urte. Egia edo guzurra, kontatu horixe kontetan eben herritarrek.

Kontuak kontu, pasadizuak pasadizu, holangoa izan ei zan Iaun Zuria eta Bizkaiko Jaurerriaren sorrerea. Sustraiz, Santimamiñetarren eta Eskoziako errege-odolekoa izan bazan Iaun Zuria, semea, horrezaz gainera, euskal jainkosa batena, Mari Anbotokoarena. I.Z.+CMIX.”

Hortxe eta holantxe amaitzen zan ha eskuizkribu misteriotsua. Eginak eginda, nire partetik gauza bat baino ez neukan argitzeko, zein? eta hauxe: non geratu zan azkenean ha Izaroko eskuizkribu misteriotsu ha!

Ba, hara irakurle, sinistezina izan arren, hauxe gertatu jatan, eta egia esateko, nik neuk baino ez dakit zenbat sentitu neban.

Aditu, latinezko eskuizkribu haren azken zatia itzuli nebanean, Mundakako Santa Katalinako iparraldeko hormeari neutsala nengotan, gerizpe gozoan, egun eguzkitsu zoragarri baten. Azkenean, ordenagailuari dana gorde-


tzeko agindua emon neutsanean, bihotzeko askatasunaren eraginez edo, loak hartu ninduan esku baten ordenagailua eta bestean eskuizkribudun koadernoak nebazalarik.

Halango baten, Leireko Birila abadea lez lo gozotik iratzartu nintzanean, ordenagailua bakarrik neukan esku batean. Zutundu nintzan, inizitua bestean egin ere, eta hara han non joian itsas-gabiota bat Izarorantz bere pikuan nire eskuizkribudun koadernoak eroiala.



Gogor egin neutsan, zantzo, irrintzi eta alaurietarainoko guztiak askatuz nire eztarri-rik hara. Nire garrasietara ha itsas-antxeta

gehiago uxatu neban eta bildurrez edo, gora baino ere gorago joian bere hegoen pliplapleoan. Handik lasterrera neure begien aurrean, neure ezinaren ezinean, eskuizkribua pikutik soltatu egin jakon hari kaio mantzin-lapurrari eta Dedaloren begien bistan Ikaro itsasora jausi zan lez, nire eskuizkrubudun koadernoan ere, orri guztiak dariola, jausi eta hondoratu jatan Izaro eta Mundaka arteko itsaspean.



## HIZTEGIA

**(a)n baino ez + aditza:** ez + aditza (a)n

**abantean:** arin, zuzian

**abemariak:** iluntzetan joten diran kanpaiak  
ermita zein eleizetan

*Adib: zer emango neukean baino ez da: ez  
dakit zer emongo neukean*

**adinon:** ezer egin barik egotea

**ahoa askatu:** berba egiten hasi

**aiko:** hona hemen

**akordatzako:** akordu barik

**alimu:** adore

**amea:** ama, batez ere animalietan

**aloso:** dezente, ugari

**ametsorri:** urdailara-bidea

**andafuerazko jantzia:** esaera: kanpora bota.

Kasurik ez egitea

**arean:** inor, ezer, zeozer, apur bat

**argikanpae:** egunsentiaz batera joten diran  
kanpaiak

**arrikanpae:** egunsenti-kanpaiak

**artaperik artape:** arte-zuhaitzpetatik  
**arte arterik arte arte:** arte-zuhaitz artetik  
**artepe:** arte arbola pean  
**ataka:** atea  
**atoan:** berehala  
**atomatu:** ausartu  
**atxea-motxea:** atzamarren jolasa  
**atzerik hara:** atzetik  
**aurbehera:** aldapa behera  
**aurgora:** aldapa gora  
**barausi:** gosari txikia  
**beharleku:** ekintza  
**bekaneke:** siesta txikia  
**belea beltzago ez egin:** gauzak okerrago ezin  
joan (esaerea)  
**belu:** berandu  
**berbaltua:** tartamutua  
**berekitan:** berekautan  
**beren beregi:** espreski  
**bildurkilik:** bildur handiagaz  
**bildursatua:** lehenagotiko bildur kendu ezina  
**binke:** gaztelerazko "bien que"  
**biozturia:** urdailaren ahoa, bihotzerre tokia  
**demonintrua:** deabrua esateko eufemismoa  
**dendik ere:** dana dala, dana dalakoa

**denodu:** indarra  
**ditea:** gogoa, asmoa  
**durdidu:** zorabiatu  
**egarriz tximeltan:** egarri handiaz  
**eginen:** zeregin  
**eginena langoa:** nolako eginena  
**egurdarte:** eguerdi aurea  
**elia:** multzoa (jatorriz: ganadu multzoa)  
**endemoniño:** oso handia  
**eragon:** ekin, jardun  
**erantatu:** jagi, mogitu  
**ermakariak:** umea jaio eta egun batzuetara  
egiten diran opari-ospakizunak  
**ernaroa:** haziaren erne aroa  
**erresuma:** hormearen gain-gaineko teilatu  
hegalpea  
**errezkan:** asko, ugari  
**estaria:** leku apartekoa, ez lekua  
**fetura:** itxura, patxada  
**gabonkariak:** gabon-otzarako jan-edariak  
**galtzupoila:** eskuta, bi eskuak hartu ahaleko  
galtzu karga  
**garbikuzi:** garbitasun  
**gaulendia:** iluntzea  
**gauzeztandu:** balio ezean geratu



**gesu baten:** denpora gitxi barru  
**goiti-beiti:** gora-behera  
**gosunea:** arin jan edo edatearen ondoriozko  
samako mina  
**haronakoa:** hara eta honako joan-etorria  
**hazdui:** haitz askoko tokia  
**hazeguna:** ereitzak egiteko sasoi egokia  
**hazkaia:** haztea  
**hegillamua:** hegi zelaia  
**idergibete:** ilargi bete  
**igeska:** zuhaitz enborreko perretxiko sikua,  
txispatik sua hartzeko onenatarikoa  
**inizitua:** oinaztargia  
**inontza:** ihintza  
**intilla:** soloa lantzeko hagindun tresna  
**intzigua:** gogo handia  
**izki:** apur bat  
**itaurren:** uztartutako idi edo behien aurretik  
ibili gidatzeko  
**kia:** ez  
**kiputu:** hozmindu, moteldu  
**kirikiñusi:** gaztaiñudietako gazaina-kirikiñoak  
batzeko hesia  
**komertazio:** alkarrizketa  
**kontaderia:** kopurua  
**kopau:** janari bokaduna

**kortika:** zikinkeriazko azala  
**lasiertuna:** ganaduen gaixo bat: errapeak go-  
gortu  
**Lekobidesea:** Lekobideren andrea  
**lo-arrazo:** lotan ipini  
**lumorraztubakoa:** 1.- lumaz jantzibakoa  
2.- heldu edo maleziabakoa  
**lurbela:** lur baltza  
**maleta sikua:** kozinatu bako jakiak, otarteko-  
ak etab.  
**mehatzune:** baso edo antzerako zelai hutsa  
eta garbia  
**mendia hartu:** egokitu, hartara egin  
**merro:** eskasa, makala  
**nor zaran beist:** zeu nor zaran  
**oboen-oboen:** inguratuz-inguratuz  
**okelua:** bazterra  
**orkolo-hatza:** eskuko atzamar lodia  
**parte onekoak:** mito-pertsonaia onak  
**parte txarrekoak:** mito-pertsonaia txarrak  
**podasuz:** poderioz  
**putxa:** gatzatua  
**sakonaria:** sakontasuna  
**sentzain:** seinu zaintzen  
**sorots egin:** bigilatu

**sugin:** sua egiteko  
**sumika:** soloariak edo egosteak izten dauan  
mantxa berezia  
**surte:** behesua sutan  
**tenola:** adore, kemen  
**tertzio:** garai, sasoi, goiz  
**trabuko:** antzinako harri-bolak botateko tresna  
**tirauzu:** zatoz  
**uzama:** ugazama, ugazamandrea  
**zautu:** beresi, isasi, ibarbaso  
**zein areriuoren bat etorri:** areriuoren bat eto-  
rrian ere  
**zeinakio:** zer egin jakin ezean  
**zezina:** ganadu-haragi gazitu-sikatua  
**ziha:** koipe-ura  
**zorribide:** zimurdura bitarteak  
**zuzian:** arin, oso arin

LIBURU HAU  
TIMES FAMILIAKO  
LETRA MOTAK ERABILIZ  
INPRIMATUA IZAN DA.

**EKIN BILDUMEA:**

- 1 • Joxemari Iturralde  
**Lehenengo amodioa Suedian**
- 2 • Aitor Arana  
**Uxue eta Urtzi**
- 3 • Juan Manuel Etxebarria  
**Iaun Zuria**
- 4 • Iñaki Zubeldia  
**Nire aita ezin izan neban salbatu**
- 5 • Iñaki Bernaola  
**Lau idazluma ahiztak**

**Gazteentzako eleberri honetan,** Jaun Zuria, Bizkaiko Jaurerriko lehenengo Jaun mitikoaren bizitza historiko-fantastikoa oinarritzat harturik, sasoi haretako bizkaitarren izaerea eta biziera azaltzen da egiazko datu eta asmatuak bitarteko.

Mendeak joan, mendeak etorri, aldatuz dator bizitza bidea eta hainbat biziera bidean geratzen jakuz zaharkitu edo eta gauzeztandurik. Hizkuntza ere bizitza aldaketokaz batera doa, baina, zorionez, belaunaldiz belaunaldiko egokitzearen bidez, bideratu daiteke etorkizunera. Arbola onak sustrai onak behar badauz, euskera onak beste hainbeste. Eskuetan dozun herri-sustrai emonkor hau, zahar on egin dadila etorkizuneko euskerearen aberasbidean!

